



URTEKARIA DEBAGOIENA 2012



Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.

Zorionak eta Urte berri on!



250 lagunentzako jantokia
Gustua eta luxua denon eskura

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA
www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es

**ARAMAIO****ZUIAKO KOADRILA SARITU EGIN ZUTEN FITUR AZOKAN**

Zuiako Koadrilaren lana saritu egin zuten Madrilgo Fitur turismo azokan. Aurreko urteko udan Koadrilak Bizkaiko Gorbeialde nekazaritza guneen garapenerako elkartearekin batera abiarazitako Gorbeia Central Park proiektua saritu zuten.

ELGETA**KANTSATZEKE MENDI TALDEA ELKARTE BIHURTU ZUTEN**

Kantsatzeko mendi taldea elkarte bilakatzeko lehen batzarra egin zuten urtarrilean, nahiz eta jatorria lehenagokoa zuen. Ozkarbi elkarteko zenbait lagunek eratu zuten elkarte berria, antolatutako ekintzak herri osora bideratzeko asmoarekin.

DEBAGOIENA**INOIZKO AURREKONTU HANDIENA ONARTU ZUEN MANKOMUNITATEAK**

14.076.522,28 euroko aurrekontua onartu zuen, 2011koa baino %65,58 handiagoa. Ingurumen Sailak hartu zuen zati handiena, besteak beste, atzeratutako zenbait inbertsio egiteko, Epeleko zabortegian, esaterako.

ARRASATE ETA ESKORITATZA**AP-1eko zerbitzuguneak ireki zituzten ►**

Urte berriarekin batera ireki zituzten AP-1eko bi zerbitzuguneak, Arrasatekoa (Oxinalde) eta Eskoriatzakoa (Uztarreta). Hala, Eibar-Gasteiz autobideak zerbitzugune bi ditu Debagoienan, norabide bakoitzeko bat. Ohiko erregaiez gain, ibilgailu hibridoentzako petrolioeko gas likidoa eta kamioientzako Adblue gehigarria ere eskaintzen dira. Auto-karabanak hustu eta aparkatzeko gunea ere badute.

**BERGARA****Herribus berriak, garraio publikoa sustatzeko ◀►**

Olentzerok urbano berriak eka- rri zizkien bergararrei. Hilaren 2an estreinatu zituzten, "zerbitzu eraginkor, ekologiko eta erosoa" emateko asmoz, udal ordezkariak esan zutenez. Ibilgailu berriekin batera, zerbitzuan ere egin zituzten hobekuntzak: ordura arte ez bezala, bi linea jarri zituzten –nahiz eta ekainean batu egin zituzten eraginkorrago izateko–, Bolura arte luzatu zuten ibilbidea eta maiztasuna ere areagotu egin zuten.

**OÑATI****Herriorran prozesu parte-hartzailea ▲**

Oñatiko Udal Gobernuak, "governagarritasun berri bat bilatu nahian", Herriorran proiektua abiarazi zuen, egitasmoak herritarrekin modu parte-hartzailean lantzeko. Hori horrela, urtean barrena hirigintza, basogintza, jaiak eta hezkuntza landu dituzte –besteak beste– herri- tarren parte-hartzearekin batera. Irudiko Gazteria Herriorran tailerrean, esaterako, Gaztelekuarekin zer egin eztabaidatu zuten.



goiena[“]

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitalpena
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibak Elkartea
E05 Besabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxel

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500: Olatona Lizeitaduna 31 |
132 posta-kutxa Tel: 943 25 05 05 |
Fax: 943 25 05 00 | arrasate@goiena.com

Harpidetza Arretxaleta 20550
E05 Besabe Poligonoa | Tel: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

Laga Gordulua: NA-3329/2000
ISSN: 2794-360X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 10.951 ale

DEBAGOIENA 2012 URTEKARIA


Zuzendaria Enrike Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Erredaktorea Usso Agirre, Miran Altabe, Aitziber Arribas, Arribas, Enrike Azkarate, Arribas, Bernas, Maria Belandier, Jokin Berroteran, Miran Bikuria, Miran Blier, Oihana Elortza, Arantza Ezkibel, Leire Kortabarría, Ubane Madera, Amaia Txintxurrela, Xabi Urteola, Larraitz Zeberio.

Txestuen zuzendaria Sergio Azkarate
Maletazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Argazkiak (sinadurarik ez dutenak) Erredaktorea, Ander Monedero, Argazki Press, Eusko Mankuntzako Argazki Arribas, Joseba Arantxel, Julio Calleja, Jekunde, Imanol Soriano.

Publizitatea Miria Larrañaga, Amaia Mundirano, Zortza Martín, Imanol Elortza.

GOIENAK ez du bere gain hartzen argitalpen honetako kolaboratzaileek adierazitako intzientziarik.

HONAKO URTEKARIAREN EDIZIOA ABENDUAREN 19AN ITXI DU GOIENAK

LAGUNTZALEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



DEBAGOIENA HILAREN 1EAN HASI ZUEN JARDUERA KUTXABANK-EK

Urtarrilaren 1ean ekin zion biderei Kutxabank-ek, BBK, Kutxa eta Vital, hiru euskal kutxen bateratzetik sortutako bankuak. Hiru kutxak dira erakunde berriaren akziodun bakarrak, eta haren eskuetan utzi zuten euren finantza-negozioa.

ARRASATE ZENTRALIZATU EGIN ZUTEN LARRIALDI FARMAZIA ZERBITZUA

Arrasaten zentralizatu zuten, Ofiatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako herritarrendako. Bergarak betiko moduan jarraitzen du. Arrazoa izan zen herri horietan zerbitzuaren erabiltzaile kopurua oso txikia dela.

3.046

LANGABE

Langabe kopuru horrekin hasi genuen urtea, %9,83ko langabezia tasarekin. 3.000 langaberen muga gainditu zen lehenengoz, 2011ko maiatzetik.

ELGETA

Domingo Iturbeko aparkalekua ireki zuten ▲

Domingo Iturbeko aparkalekua urtarril erdialdera ireki zuten. Gune berrian 36 auto sartzen dira: 23 plaza daude beheko aparkalekuan eta 13 Domingo Iturbe kalearen luzeran.

Lanok 407.508 euroko aurrekontua izan zuten eta Eusko Jaurlaritzako Hiriber programatik 231.868 euriko finantzazioa jaso zuten. Zonako urbanizazio lanen lehen fasea izan zen; otsailean eraikina bota zuten.



ESKORIATZA

Gurean ere sortu zuten Nafarroa Bizirik taldea ▼◀

Gaztelako eta Aragoiko koroek Nafarroa konkistatu zuteneko 500. urteurrena izan da aurtien. Urteurren gozoa ez izan arren, hari alde onik ateratzeko gogoarekin batu ziren zenbait herritar 1512-2012 Nafarroa Bizirik mugimenduan. Debagoiengan ere sortu zuten taldea eta urtarrilean aurkeztu zuten euren burua Eskoriatzan egindako agerraldian. Urtean barrena zenbait ekitaldi egin dituzte; lehena, Atxorrotzeko gazteluaren azarnen ondoan.

ETXARRI ARANATZ

Ikurrina legeztatu zutela 35 urte bete ziren ◀

Urtarrilaren 16an bete ziren eta ekitaldi berezia egin zuten Etxarri Aranatz, 35 urte lehenago Alkateen Mugimenduko kideek egindako ekitaldi sonatua gogora ekarrita. Euskal Herri osoko zenbait alkate eta eragile izan ziren, Debagoienekoak barne, eta Jose Luis Elkoro bergararrak, Alkateen Mugimenduko buru izan zenak, aipamen berezia jaso zuen, "35 urteren ostean, herriarekin hartutako konpromisoengatik preso daukatelako", esan zuten.



Santakurtz 24 behea. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

• Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
• Obra bukaerako garbiketak
• Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
• Kristalen garbiketak
• Arropa garbiketak

Zorionak eta Urte berri on!



Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33
943 79 42 56

FELIX PAGALDAY

Zorionak eta
urte berri on!

DEBAGOIENA 31 AUTOBUS JOAN ZIREN BILBOKO MANIFESTAZIORA

Urtarrilaren 7an Egin Dezagun Bidea mugimenduak presoen eskubideen alde Bilbon antolatutako manifestaziora Euskal Herri osoko milaka lagun joan ziren. Debagoienetik, autoz joandakoez gainera, 31 autobus abiatu ziren.

DEBAGOIENA 'UPAINGOA' ETA 'KATAIDE' GETARIAKO TXAKOLIN EGUNEAN

Ohitura denez, Gipuzkoako txakolin berria lehen aldiz dastatzeko aukera izan zen Getarian, San Anton egunean. Gipuzkoako Txakolina jatorri izeneko zenbait ekoizle batu ziren han, baita Debagoieneko Upaingoa eta Kataide markak ere.

ONATI LAPURRETEN AURREAN ZUHUR JOKATZEKO ESKATU ZUTEN

Lapurretetik gora egin zutela-eta Udalak zuhurtiaz jokatzeko dei egin zien herritarrei, segurtasun protokoloa abiatzearekin batera. Urtarrila aurretik, azaroan eta abenduan ere lapurretak asko izan ziren etxe eta garajeetan, eta egonezina sortu zen herritarrengan.



ARETXABALETA
ALBERTO
INURRATEGI
ALPINISTA

Hego Polara bi hilabeteko espedizioa egin zuen. 2.200 kilometroko zeharkaldia egin zuen, eta, helburu guztiak bete ez arren, gustura itzuli zen.



BERGARA
MANEX
AZULA
SNOWBOARD
RIDER-A

Aurtien lehenengoz jokatu diren gazteen neguko Joko Olinpiarretan hartu du parte, Innsbruck-en (Austria). Espainiako Federazioak aukeratu zuen snow lehiaketarako.

ELGETA

DKS sarietan bailarako 9 kirolarik jaso zuten saria ►

2011 urtean egindako lanaren eta esfortzuaren ondorengo aipamena eta errekonozimendua jaso zuten Elgetako Espaloian bailarako kirolari onenek. Saria jaso zuten: Oihana Kortazarrek, Markel Irizarrek, Iker Sanchezek, Mondrako neskek, Jabier Zelaia, Aitor Lopez Rekartek, Alberto Vesgak, Mikel Aristik eta Arlutz Xake Taldeak. Manolo Muñoz zena ere izan zuten gogoan eta haren familiak esker oneko omenaldia jaso zuen.



ARETXABALETA

'Zast!' musika ikuskizuna estreinatu zuten ►

Zast! izeneko ikuskizun musikatua estreinatu zuen Aretxabaletako eta Arrasateko gazte talde batek Aretxabaletan urtarrilaren 27an: Beñat Zamalloa kontalari, Martin Antxia perkusioetan, Eñaut Zubizarreta txeloan, Aitor Ziardegi pianoan eta Maialen Arratibel gitarran eta kantuan aritu ziren. Ipuinetatik abiatuta, hainbat eratako testuak irakurri zituzten musikaren lagunduta. Emanaldi honen ondoren, gehiago ere egin zituzten bailaran.



2013A OPAROTASUNEZ BETETA IZATEA OPA DIZUGU.
ZURE KONFIANTZA IZATEN SEGITUKO DUGUN ESPERANTZAREKIN ETA
GURE ZERBITZUAK ESKEINTZEN SEGITUKO DUGULAKOAN.

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

EGUZZKIGRAF
inprimategia

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura



San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista

Urte berri on!

BERGARA
ASKASIBAR ASKATZEAREN ALDEKO EKIMENAK ABIAN
21 aski dira lelopean, Mikel Askasibar Aska Bergarako presoaren aldeko ekimenak abiarazi zituzten. *Parot doktrina* du ezarrita Askasibarrek, eta, nahiz eta zigorraren hiru laurdenak beteta izan, kartzelan segitzen du.

OÑATI
OÑATIKO 50 GARAJETAN LAPURRETAK IZAN ZIREN
Oñatiko Ugarkaldeko 1, 2, 3 eta 4. atarteetako garajeetan lapurrak sartu ziren. 50 bat garajetako sarriak eta aparkatuta zeuden 15 autotako kristalak apurtu zituzten. Batez ere, kalte materialak eragin zituzten, eta auto barrukoak eraman.

ARRASATE
LEZETXIKIKO ONDAREA BABESTU ETA IKERKETA BULTZATUKO DUTE
Aranzadi Zientzia Elkarreak eta Arrasateko Udalak Lezetxiki babesteko prozesua abiarazi zuten. Arrasateko arkeologia ondarea babestu eta Lezetxikiko ikerketa zientifikoarekin segi dezaten laguntza eman, eta Jaurilaritza eskaera egin zioten.



ESKORIATZA
SARA GARTZIA
LANGILEA ETA INGENIARITZA IKASLEA



ELGETA
EDUARDO ZUBIAURRE
ADEGIKO BURUA



BERGARA
Pilotalekua gainezka 'Ai, amatxo!' -rekin ►
Udal Pilotalekua bete egin zen Abba talde suediarren kantuetan oinarritutako *Ai, amatxo* musikala ikusteko. Aratusteetako urteroko emanaldiaren barruan interpretatu zuten musikalki hori, Udal Musikal Bandarekin eta Orkestra Sinfonikoarekin. Ehunka lagunek parte hartu zuten. Emanaldiaren bukaeran, txalo zaparrada jaso zuten musikari, abeslari zein dantzariak. Bergarrendako urteroko zita da Aratusteetako kontzertu hori.



ARRASATE-BERGARA
Antxintxika, Euskal Herriko talderik onena ▲

Antxintxika Triatloi Taldeak Euskal Herriko talde onenaren saria jaso zuen, otsailaren 4an. Talde indartsuen aurretik sailkatzea lortu zuen, gainera: SVC –Eneko Llanosen taldea–, Zarautz eta Atletiko San Sebastian taldeen aurretik, hain zuzen ere. Arrasateko eta Bergarako triatloi taldeak batuta sortu zen Antxintxika Triatloi Taldea. Triatloietan edo duatloietan ibiltzen da talde hori; emaitza esanguratsuak eskuratzen ditu.



BERGARA
Premiadunei jaki gehiago bidaltzeko hitzarmena ◀

Diputazioak eta Bergaran egoitza duen Gipuzkoako Elikagaien Bankuak lankidetzat hitzarmena sinatu zuten, *Azken minutua* ekimena sustatzeko, otsailaren 15ean. Hitzarmenaren bidez, saltoki handietan eta enpresa ekoizleetan ahalik eta janari kopururik handiena biltzeko aukera izango du Elikagaien Bankuak. Elikagaiak jaso ondoren, 24 orduan sailkatu eta manipulatutako dituzte, gero elkarre onuradunen artean banatzeko.



OÑATI
Aloña Mendiko neskek gorengo mailan ▲

Senior mailako nesken taldeak Euskadiko talde indartsuenen kontra jokatu du irailetik aurrera, igoera lortu zutelako. Ordura arte preferente mailan jokatu dute, aurreko denboraldian lortutako igoerari uko eginda. Ikasturte berriari begira, aurreko urteko talde bera mantenduko dute. Hala ere, denboraldi "zaila" aurreikusten dute, orain arte Gipuzkoan jokaturako partiduak Bizkaian jokatu dituztelako, eta han irabaztea zaila delako.

ARAMAIO
ARAMAIXO BASERRI BARRI PROIEKTU EREDUGARRIA
Landa garapeneko beste eredu bat proposatzen duen Aramaio Baserri Barri proiektuaren oihartzuna handitu egin zen, Zuiako Koadrilan erakusketa ipini zuten eta Arabako hainbat herritako ordezkari Aramaion izan ziren, proiektu hori ezagutzeko.

ARRASATE, ARETXABAETA, ESKORIATZA
LODOSAKO IKASTOLAREN ALDEKO JAI ARRAKASTATSUA
Ikastola hemen bai, Lodosan zergatik ez? leloaren bueltan Lodosako Ibaialde Ikastolaren aldeko jaiak egin zuten, Arizmendi Ikastolak bultzatuta. Lodosakoei laguntzeaz gainera, Nafarroako ikastolek bizi duten egoera salatu gura izan zuten.

4,5
MILIOI EURO
Gure ibarreko zortzi udalek 4,5 milioi euro itzuli beharko dizkiote Udal Foru Fondoari. Otsailaren 25ean ordaindu behar izan zuten kopuruaren lehenengo zatia.



ESKORIATZA
Udal liberatuen soldatek eztabaida piztu zuten ◀

Ezker Anitzak adierazi zuen aurrekontuak aztertzerakoan konturatu zirela Eskoriatzako udal liberatuen soldata %33 pasatxo igotzen zela. Eta krisi egoera kontuan hartuta, eskatu zuen Udalak kopuru horren zati bat bere gain hartzea eta beste bat Bilduk. EAJk eta PSE-EEk bat egin zuten horrekin. Beñat Herce alkateak erantzun zuen uztailako bilkuran onartu zutela kobratzen jarraitzea aurreko lanean kobratzen zuten bera.

ARRASATE
Operazaleen elkarteak aurkeztu zuten: Ozenki ►

Debagoienean lirika sustatzeko helburuarekin aurkeztu zuten Arrasateko Ozenki elkarteak, otsailaren 7an. Hiru lagunek osatutako da, eta bi helburu nagusi ditu: Arrasaten musikazaletasuna sustatu eta Debagoieneko musika eskolekin elkarlanean aritzea. Asmoa, berriz, da urtean bi emanaldi antolatzea: bata, opera emanaldia; eta bestea, herriko jendearekin egindako ikuskizuna. Estreinaldi moduan, *La Bohème* opera ekarri zuten, martxoan.



HORTZ KLINIKA

UARKAPE

Nicolas Bermejo doktorea

Odontologia orokorra

Endodontzia

Implantologia

Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZUEGU!!!

- ERA GUZTIETAKO IBILGAILUAK
- NAHI DUZUN TOKIRA ERAMATEN DIZUGU IBILGAILUA
- AIREPORTUKO ZERBITZUA

www.goienairent.com

Zubillaga auzoa 20 1.a ZM5 (Olaburu zentroa) • OÑATI

943 71 66 52 / 619 44 71 75

943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com

Zorionak eta urte berri on!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

Bulego eta lokalak

Jabeen erkidegoak, garajeak

Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak

Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 behe • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com



ARRASATE
FABIAN
BILBAO
FAGOR ETXETRESNAK
TALDEKO ZUZENDARI

Fagor Etxetresnak Taldearen zuzendari nagusi izendatu zuten. Txema Gisasola ordezkatu zuen. Gisasola Mondragon Taldeko presidente izendatu zuten.



ARRASATE
IBAN
GONZALEZ
ERREALIZADOREA

Iban Gonzalezek Unesco Etxearen saria jaso zuen, *Nos-otr@s* film laburrarengatik. Unai semea da protagonista eta Epelen grabatu zuen.

ARRASATE
GOIKOBALUREN 20 URTEK
IBILBIDEAREN GAIKOBALU
20 urtez kantuan izenburuarekin aurkeztu zuten Goikobalu abesbatzaren 20 urteko ibilbidea batzen duen DVD-CDa, Kulturaren. Euskarazko 20 kanturekin osatu zuten, argazki, irudi eta testigantzekin batera. Artemanek egin zuten.



DEBAGOIENA

Debagoieneko udalerrri nagusietan, atez atekoa ▲

Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Oñati eta Aretxabaletan 2013an atez atekoa jarriko zutela iragarri zuten, otsailaren 22an. Donostiako Miramar jauregian emandako prentsurrekoaren arabera, udalerririk otsailetik ekainera bitartean egingo dute bat sistema horrekin.

OÑATI

Santa Ana aretoa lepo, 'Mirrix katua' ikusteko ▲►

Ganbara abesbatzako ehun lagun pasatxok *Mirrix katua* musikala estreinatu zuten Oñatiko aretoa lepo bete zuten, otsailaren 12an. Ordu erdiz, bost kontinenteetako kantuak taularatu zituzten, Aitor Biainen zuzendaritzapean eta Miel Guridi narratzaileari jarraituta.

“EGUNEROKO AZOKA BIRTUALA”

Debagoiena BASERRI SAREA
Auzolanean zurekin

ETXERAINO DOHAINIK!
URTARRILAREN 5A ARTE!

www.baserrisarea.com

500

ZENBAKI

GOIENA paperak 500. zenbakia atera zuen martxoaren 9an, 500 aste debagoiendarren artean. Hala, 11 urte pasa bete zituen albisteak euskaraz ematen.

BERGARA

PIKUPE PRODUKZIOAK SORTU ZUTEN KULTURA BULTZATZEKO

Kultura sortzailei bultzada emateko asmoarekin Pikupe Produkzioak sortu zuten Karlos Etxaniz eta Iker Muruamendiartz bergarrek. Herriak kulturaz zipriztintzeko antolatzaile eta sortzaileen bidelagun izatea zen haien asmoa.

ARRASATE

DEBAGOIENEN ARTZAINEN LEHEN AZOKA EGIN ZUTEN

Mankomunitateak eta Debagoia Landa Garapen Elkarrekin antolatuta, Debagoieneko artzainen azoka egin zuten Arrasaten lehenengoz, martxoaren 17an. Artzainekin batera bailarako baserriarrak eta txakolingileak elkartu ziren.

BERGARA

LOKATZAREN DAINUA EGIN ZUTEN BERGARAKO UDAL BANDAK

Alfredo Gonzalez Chirlaque bandako zuzendariari eskatu zion Lokatza txirindulari taldeak ereserkia egiteko, eta hark lasterketa baten garapena deskribatzen duen doinua egin zuen, tempo ezberdinak erabilita. Martxoaren 18an aurkeztu zuten.

ESKORIATZA

ESKORIATZA ZEN GUTXIEN BIRZIKLATZEN ZUTEN HERRIA

Mankomunitateak emandako datuen arabera, bailaran gutxien birziklatzen zuen herria zela Eskoriatza jakinarazi zuen Bilduk, %30,12. Hondakinak gaika biltzea "ezinbestekotzat" jo zuten, eta birziklatze tasa %30etik %65era igotzeko asmoa agertu.

BERGARA

Senegali laguntzeko Ndank Ndank elkarteak ►

Ndank Ndank elkarteak sortu zuten Bergaran, bi helbururekin: senegaldarren eta euskaldunen artean kultur artekotasuna sustatzea; eta Senegalen hezkuntza eta osasunarekin lotutako lankidetzak proiektuak aurrera eramatea. Senegalgo Fatick eskualdeko Dionewar herrian jarri gura zuten abian lankidetzak proiektuetako bat, eta elkarteak presidente Mamadou Sarr han izan zen martxoan, hango GKE ezberdinekin harremanetan.



DEBAGOIENA

EAJko hautetsiak, atez atekoaren aurka ►

Debagoieneko EAJko hautetsiek prentsurrekoa egin zuten "atez atekoaren aurkako" jarrera era-kusteko eta ezker abertzalearen jarrera salatuz: "Bilketa siste-ma herritarrei galdetu gabe eza-rriko dutelako".

Birziklapenaren eta bosgarren edukiontzia alde agertu ziren hautetsiak, eta Debagoieneko udalbatza guztietan herri kont-sultak egiteko eskaerak aurkez-teko asmoa agertu zuten Bergaran egindako prentsurrekoan.



ESKORIATZA

Atxorrotz kultura ondare izendatu zuten ▲

Eusko Jaurilaritzako Gobernu Kontseiluak martxoaren 6an dekretuz erabaki zuen Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa-ri monumentu kategoria ematea. Jaurilaritzak, gainera, bi eremu zehaztu zituen: tontorra eta beheal-dean dagoen aisialdigunea. Hala, ingurune horietako ekintzak mugatu zituen, eta ermita inguruan neurri zorrotzak ezarri: kultura ekintzak bakarrik egitea eta, behar izanez gero, ermita zutik manten-tzeko lanak.

BERANGO
DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Gipuzkoa etorbidea 1, 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 01 92 - Faxe: 943 79 01 11
www.berangodeco.com
berango@berangodeco.com

SANTOS



JARRAI
GAITZAZU
FACEBOOKen

Zorionak eta Urte berri on!

ESKAINITZA BEREZIAK
erakusketako
altzarietan





ESKORIATZA
JOSEBA
AZKARRAGA
SOZIOLOGOA



OÑATI
JONE
ELORTZA
SOKATIRALARIA

"Kolisio momentua bizi dugu, eta kolapsora ez dago pauso handia"

Munduko sokatira txapelketa irabazi zuen Elortzak Eskozian, Gasteizko Badaioztz taldearekin. Urrezko domina lortu zuen 500 kilokoan eta zilarrezkoa 540koan.

ARETXABALETA
ARALAR UDAL GOBERNUTIK
IRTEN ZEN

Hamar hilabete egin zituzten gobernuan Bilduk eta Aralarrek, eta martxoaren 26an elkarlana hautsi eta oposiziora pasatu: "Ez da egon batere elkarlanik eta konfiantza faltak bi taldeak urrundu egin ditu", zioen Inaxio Garrok, Aralarko zinegotziak.



OÑATI

Preso politikoek aldeko 'Herrira' ekimena aurkeztuta ▲

Euskal preso politikoek eta iheslarien etxeratzea eskatzeko eta dituzten eskubideak aldarrikatzeko asmoarekin aurkeztu zuten martxoaren 31n Herrira ekimena. Oñatiar asko elkartu ziren ekitaldian eta herriko lau presoren egoera gogorarazi zuten bertan.



BERGARA/OÑATI

Atez ateko sistema onartu zuten osoko bilkuran ◀▲

"Emaita onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren, hau da, atez atekoaren aldeko konpromisoa" hartu zuten Oñatiko eta Bergarako udalbatzek martxoko bilkuretan, mozio bidez. EAJko kideek aurka bozkatu zuten bi herrietan, baita PSE-EEkoek ere Bergaran.



ESKORIATZA

Tokikom eratuta, euskarazko toki hedabideen enpresa▲

Euskal Herri osoko euskarazko 19 tokiko hedabidetako ordezkariek -tartean Goiena- aho batez onartu zituzten Tokikom enpresaren estatutuak martxoaren 17an Eskoriatzako Huhezi fakultatean egindako batzar eratzailean.

Era berean, onartu zuten sozietate mugatu izaera izatea elkarleak eta egoitza Andoainen kokatzea, Topagunearen leku berean. Eta asmoen artean zituzten toki hedabideen azpisektore osoa Tokikomen bueltan egotea.



DEBAGOIENA

Grebak erantzun zabala izan zuen, sindikatuen ustez ◀▲

Azken 20 urteotako grebarik garrantzitsuenak izan zen martxoaren 29an egindakoa, Hego Euskal Herriko sindikatuen esanetan. Pikete informatiboak izan ziren hainbat herritan, tartean Bergaran, baina lasaitasun osoz eta inolako gorabehera barik joan zen eguna.

BERGARA

Eztabaida beroa hondakinen inguruan ►

Hondakinen gainean jarduteko elkartu ziren bost alderditako ordezkariek -Bildu, EAJ, Aralar, PSE eta Ezker Anitza- Bergarako Zabalotegin, martxoaren 15ean. Mankomunitateak eta Goienak antolatutako saioa izan zen eta eztabaida beroa sortu zen; jarre-rak hurbildu barik nork bere iritzia argi utzi zuen bertan.

Zabalotegira ikusleak hurre-ratu ziren eta *Goiena.net*-ek zuze-nean eman zuen saioa. Galdetzeko aukera ere izan zuten ikusleok.



OÑATI

Mailaz jaitsi zen Natra-Oñati taldea ▲

Lau urte ikusgarri bizi izan zituen Natra-Oñati saskibaloit taldeak eta aro horri agur esan behar izan zion martxoan jokaturako azken partidarekin batera. "EBA mailan lehiatzeko gauza garela erakutsi dugu, baina ez partiduak irabazteko", zioen Xabi Igartua entrenatzaileak orduan.

Hala ere, oso balorazio positi-boa egin zuten Natra-Oñatikoek, kanxan gura zutena ez lortu arren, herrian saskibaloit giro polita sortu zutelako.



ARRASATE
DORLETA
MARTINEZ
MEDIKU
HEMATOLOGOA

"Elikadura begetarianoarekin edozein minbizi saihestu dezakegu"



ARRASATE
AITOR
LOPEZ REKARTE
FUTBOL JOKALARIA

Futbola utzita izan arren, Mondrak egindako eskaintzari baietza eman eta hilaren 9an lanean hasi zen. Denboraldia bukatu arte jokatzeko konpromisoa hartu zuen.



ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontziaeta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia

- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Urte berri on!

Otalora, 18 solairuarte D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia.
- Ortodontzia.
- Odontologia orokorra.
- Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.
- **Estetika eta hortzen zuritzea teknika bereziarekin.**

Aseguruak: PADI (Osakidetza), AEGON

20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko dano!

Zorionak eta
Urte Berri On!

Ana
Etxeberria

- Kirol masajista
- Osteopatia
- Esku terapeuta
- Akupuntura

Zorionak eta Urte berri on!

Errekalde 6 behea • ANTZUOLA • Tel.: 943 76 60 13

OÑATI
LANBUS ZERBITZUA BERTAN BEHERA UTZI ZUEN UDALAK
2009ko martxoan hasi zen Lanbus autobus zerbitzua. Hiru urterako sinatu zen kontratua herriko lau enpresarekin. Baina, esperotako emaitzak ez zituelako eman, Udalak zerbitzua bertan behera uzteko erabakia onartu zuen martxoren 28ko osokoan.

BERGARA
JOSE INAZIO ZABALA SAN JOXEPEKO PRESIDENTE BERRIA
Hiru urtetarako izendatu zuten Jose Inazio Zabala erretiratuen elkarteko presidente. Rosa Mari Larrañaga, aldiz, presidente orde izan zen aukeratua. Besteak beste, Jose inazio Beristain diruzaina eta Jose Ramon Lozano idazkaria izendatu zituzten.

BERGARA
JESUS MARI UGALDE
JAKIUNDEKO PRESIDENTEA


Jesus Mari Ugalde bergararra izendatu zuten Jakiunde-ko presidente berri. Kimika-fisikako katedraduna da, EHUko irakaslea, eta 20 saiakera plazaratu ditu.

ARRASATE
MIKEL IRIZAR
TOPAGUNEKO PRESIDENTEA


Topagunea Euskara Elkarte-ko Federazioko presidente izendatu zuten Irizar. Euskaldunon elkarte-ko mugimenduaren eraldaketa gidatzeko ardura du.

ARRASATE
IKER ELORTZA
ERRUGBI JOKALARIA


Iker Elortza arrasatearrak Errugbi Kopa irabazi zuen Ampo Ordizia taldearekin. Zortzi urteren ostean horrelako titulu bat irabaztea pozgarria zela azaldu zigun.

ANTZUOLA
Atez ateko sistemaren emaitzekin pozik ▶

Atez ateko hondakinen bilketa sistemak urtebete egin ostean, Mankomunitatea pozik azaldu zen emaitzekin. Antzuolako Uda- leko eta Mankomunitateko orde- zkariek egindako prentsaurrekoan, emaitza bikainak izan direla esan zuten, eta goranzko joera erakus- ten zutela. Haiek diote hondakin globala %15-%20 artean jaitsi dela lehen urtean, Antzuolako auto- konpostatzearen igoera ez dutela kontuan hartu nabarmendu zuten.





ELGETA
Armadaren maniobra probokaziotzat jo zuten ▶

Espainiako armadak hilaren 24an Elgetan egindako maniobra mili- tarrek erreakzio ugari eragin zituzten. Herritarrek eta aginta- riek protesta-bilkura egin zuten. Izan ere, egun hartan, 75 urte bete ziren tropa frankistek eta haien aliatuek Elgeta bonbarda- tu zutela; probokaziotzat, iraintzat eta errespetu faltatzat jo zuten elgetarrek eta hainbat erakunde, alderdi politiko eta elkarteek Espai- niako armadak egindako manio- bra militar horiek.



BERGARA
laz baino aitorten gehiago tramitatu zituzten ▲

Aurtren 391.000 aitorten jasotzea aurreikusi zuen foru sailak, gehie- nak (312.000, denetara) zergadu- nari dirua bueltatzekoak; 351.000.000 euro bueltatu behar izatea aurreikusi zuen Ogasunak. Eta zergadunek Ogasunari 131.000.000 euro ordaindu behar izan zizkioten, 79.000 aitorten- on ondorioz. PFEZn egin dituen aldaketen emaitza gisa, Ogasunak 69.458.497 euro batzea espero zuen. Bergaran, esaterako, iaz baino gehiago tramitatu ziren.

ARRASATE
XABIER LETERI OMENALDIA EGIN ZIOTEN MUSIKARI ASKOK
Leterena berarena da *sortuko dira besteak* esana, eta horren adibide izan zen Amaian egindako emanaldi jendetsua. Estilo, herri eta belaualdi askotariko zazpi musikarik argi utzi zuten Letek euren argi utzitako arrastoa. Omenaldi hunkigarria egin zioten.

3.370
LANGABE

Martxoa 3.370 langaberekin itxi zen; azken bi urteetako datu okerre- na izan da: langabezia-tasa %10,87an kokatu zen, ibarrean, nabarmen gora egin ostean.

BERGARA
MAITE TOLEDOK BI LIBURU ARGITARATU ZITUEN
Tekno+turismoa saiakera liburua eta *Jet Lag* olerki liburua kaleratu zituen Maite Toledo idazle antzuolarrak. Beta argitaletxearekin kaleratu zituen eta dagoeneko han eta hemen hainbat sari ere jaso zituen, gainera, Toledo idazleak.



ARRASATE
Kalitatezko eztingileak Debagoienera ▶

Kalitatezko eztingileak topatzeko ez dugu urrun joan beharrik. Gure bailaran, Garbiñe Aramendi arrasatearra eztingile bikaina dugu, esaterako. Gipuzkoako ezti ilun onenagatik saritua izan zen Garbiñe Zegamako txapel- ketan.

Bittor Murgiondo senarrare- kin batera Mojategiko zelaian bederatziz erlauntza dituzte; bes- te zortzi, aldiz, Mutiloako Lierni auzoan. Murgiondok 40 urte dara- matza erleekin lanean.



ELGETA
Patronatuaren eraikina bota egin zuten ▲

Hutsune handia geratu zen Domingo Iturbe patronatuaren eraikina zegoen tokian, apirilean zehar. Goitu enpresako beharginek asko aurreratu zuten Pazko Astean; Udalak frontoi estalia egokitzeko lanak faseka esleitzeko tramitetan dihardu.





ARETXABALETA
Kiroldegia-ko kudeaketa hiruko enpresarendako ▶

Apirileko osokoan, Ibarra kirol- degia hiru enpresak osatutako hirukoak kudeatuko zuela onar- tu zen: LKS, Athlon eta Ondoan. Hamar urtez arduratuko da kudeaketaz. Goiena Sport-ek, aldiz, -lehiaketara aurkeztu zen bigarren enpresa- jaso zituen puntu gehien Aventure -aholku- laritza enpresa- egindako txos- tenaren arabera. Hala ere, boto gehien hirukoak jaso zituen hori adjudikatze-ko egindako osoko bilkuran.

ARRASATE
Arizmendiren BH Klip lehiaketa, talentuz beteta ▲

Aurtengo BH Klip lehiaketako gaia *Bailara gaztea* zen; elementua, aldiz, bizikleta. Originalak eta mezu sakonak dituzten lanak jaso dituztela azaldu zuen epaimahaia. Hala, bi lanek eroan zuten lehen saria: *Bailara gazte batengatik* eta *Gazteak post-it* lanek.



UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Zorionak eta urte berri on!

Proiektuak • Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak • Eskailerak
Leihoak • Tarimak
Egur lanak





Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra



Zorionak eta Urte berri on!

Barrenkale 44 - BERGARA - Tel/Faxa.: 943 76 24 89 - Mug.: 610 20 54 99 - 607 76 24 89



MAPFRE



Ondo pasau Gabon jaixak!

Urte berri on!!

Portu kalea 5 • 20560 Oñati • Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85



Zorionak eta Urte berri on!

Julian Uribeetxeberria Olalde
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54



ANTZUOLA
OSPITALERAKO ZUZENOKO
AUTOBUS ZERBITZUA MARTXAN
Apirilaren 16 jarri zuten martxan Arrasateko ospitalerako zuzeneko autobus zerbitzua. Zerbitzua astelehenetik egubakoitzera izango da; zazpi zerbitzu izango dira joan-etorrirako. Garraio publikoaren aldeko apustu egin nahi dute horrela.



BERGARA
DAVID
ZAPIRAIN
MUSEOKO
TEKNIKARIA

"Herriko jauntxoak eraginagatik izan zen 'Bergarako besarkada' hemen"



ARRASATE
ESTEBAN
AGIRRE
EUTSI BERRITUZ
KRISTAU-TALDEA

"Elizak ez du asmatzen ebanjelioa herriak sumatzen duen beharrera egokitzen"



ELGETA

Egia azaleratzea beharrezkoa dela aldarrikatu zuten ▶▶

Elgetako frontea orain 75 urte jausi zela oroitzeko ekitaldia egin zuten apirilaren 22an. Patxi Basauri zinegotziak gudari eta milizianoak oroitzen dituen plaka berria bistaratu zuen. Memoria berreskuratzea eta estalkia kentzea aldarrikatu zuen Intxorta elkarteak.



ESKORIATZA

Dekala elkarte sortzeko batzarra egin zuten ▲

Degurixa, Kargaleku, Leixargarate eta Alabita inguruneen izenean lehenengo hitzak batu eta horiekin Debala elkarte berria osatu zuten. Mendi, bide eta abereez arduratuko den elkarte sortzea zen asmoa. Jaurlaritzaren erantzunaren zain zeuden elkarte moduan erregistratzeko. Asmoa zen dirulaguntzak lortzea lan potoloenak egin ahal izateko. Dekalak kudeaketa baikor, produktibo, arrazional eta iraunkorra egin gura du.

Lenizek jai zoriontsuak opa dizkizue!



Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Aingeruguarda Pasealekua, 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 • Posta-e: rleniz@euskalnet.net



Zazpi ahizparen gai den oihala ebakirikan erditik, alde batera hiru soineko, utzirikan lau bestetik; guraiziakin berezi arren bakoitza bere aldetik, ezagutzen da jantzi dirala zazpiak oihal batetik.



Oihaltzat hartu zugun Euskadi guraizitat Bidasoa, hibai koxkor bat besterik ez da hutsa... balitz itsasoa. Elkarren hurbil daude zazpiak, muga daitzen da Pausoa. Zergatik izan ez behar degu famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan sortzen diran landareak bezala gara Bidasoaren bi aldetako jendeak; berdinak dira gure jatorri, ohitura eta legeak, ama euskarak magal berean hazitako senideak.



Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Ekaitz • Iluntz • Irati • Iturriotz
Mondra • Muxibar • Osorik • Taupa.**

DEBAGOIENA

SOLDATA TXIKITU ZUTEN FAGOR TALDEKO BAZKIDEEK

Fagor Etxetresnek 2010ean baino %14,4 gutxiago saldu zuten 2011n; 1.277 milioi fakturatu zituzten 2011n. Fagor Taldeko bazkideek soldata txikitzea onartu zuten, Etxetresnei eta Elektronikari laguntzeko.

ARETXABALETA


GAIKA BILTZEKO ZAKARRONTZIAK LANBIDE ESKOLAN

Bi urterako lankidetzat hitzarmena sinatu eta hainbat konpromiso hartu zituzten Aretxabaletako Udalak eta Aretxabaletako Lanbide Eskolak. Besteak beste, gaika sailkatzeko zakarrontziak egiteko eskaera egin zion Udalak eskolari.



DEBAGOIENA
CARLOS ORMAZABAL
INGURUMEN
DIPUTATU OHIA

"Errauskailuarekin balio energetikoa ematen zaie hondakin hondarrei"



DEBAGOIENA
JEAN MARC SIMON
ZERO WASTE
EUROPE

"Gipuzkoak, abangoardian egoteko, birplanteatu behar du errauste plantarena"



DEBAGOIENA
RUBEN CUETO
ABOKATUA

"Banketxeei epaitegietan irabaztea posible dela argi geratu da"

OÑATI

Txokolatearen zentroa egiteko hitzarmena ►

Udalak eta Klaxk-ek, txokolatearen aldeko elkarteak, txokolatearen gaineko interpretazio zentroa egiteko hitzarmena egin zuten, Klaxk elkarteak egindako proposamena aintzat hartuta.

Interpretazio zentroan, materiala ikusgai egoteaz gain, jendeak txokolateari buruz gehiago jakin ahal izango du; txokolatea egiteko behar diren osagaiak, adibidez. Zeintzuk diren ikusgai egongo dira, eta horien gaineko azalpenak ere emango dira.



OÑATI

Txopekua jatetxeak atea itxi zituen ◀►

Hamarkada askoren ostean, maiatzaren 31n itxi zituen atea Oñatiko Txopekua jatetxeak. Inazio Bikuñak eta Juliana Madinak zabaldu zuten Oñatiko Txopekua jatetxea 1927an, eta haien seme Kandido Bikuñak itxi zuen, 81 urterekin erretiroa hartuta.

Ospakizun berezi barik, maiatzaren 31n azken menuak eman zituzten Txopekuan. Ondorengoek, baina, ez dute baztertzen geroago berriz ere zabaltzeko ideia.



ARETXABALETA

UDAKO areto-futbolekoak, ligako txapeldun ▲

Lehen mailara igotzeko txartela lortu ostean, denboraldia boroildu zuen UDAKO areto-futbol taldeak, Bilkoen Legorretaren aurka finala irabazita.

Finalean, aretxabaletarrak 2-0 jarri ziren aurretik, baina Legorretakoek bina berdintzea lortu zuten. UDAREN 3-2koa heldu zen, eta, finala horrela amaituko zela zirudienean, azkeneko minutuan hiruna berdin zuten aurkariak. Penaltietan erabaki zuten finala (2-1).

DEBAGOIENA

MILAKA DEBAGOIENDAR PRESOEEN ESKUBIDEEN ALDE

Goazen Plazara! mugimenduaren deiarekin bat eginez, herrietako plazak jendez bete ziren "euskal presoen giza eskubideen errespetua" eskatzeko; milaka herritarrek aldarrikatu zuten giza eskubideak direla "bake eta normalizaziorako oinarria".



DEBAGOIENA

Goieskolaren 10. urteurrena ospatu zuten ▼

Debagoieneko euskal eskola publiko ikasle piloa Antzuolan batu ziren, Debagoieneko Joko eta Jolas Tradizionalen X. Topaketan, maiatzaren 18an. Lehia egin barik, Antzuola, Bergara, Oñati, Eskoriatza, Aramaio, Elgeta, Arrasate eta Aretxabaletako ikasleek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolas egiteko aukera izan zuten. Aurrera begira, euskal eskola publikoaren etorkizunaren gaineko *Haratago* izeneko txostena ere aurkeztu zuten.

ARRASATE

Bi lagun hil ziren gas leherketa baten ondorioz ▲

Gesalibarko Aldape baserriko sukaldeko propano gas bonbonaren ihesak leherketa eragin zuen, maiatzaren 10ean. Baserria erabat birrinduta geratu zen eta azpian harrapatu zituen hiru bizilagunak; bi hil egin ziren eta bestea ospitalera eraman behar izan zuten.

OÑATI

EUSKAL MEMORIA BERRRESKURATZEKO TALDEA

"Lapurtu diguten memoria osatzen laguntzeko" Euskal Memoria Berreskuratze Taldea sortu zuten Oñatin. Euskal Memoria Fundazioa 2009an sortu zen, eta, Fundazioarekin batera lan egiteko, herriko herri lantaldeak sortu ziren.

684

BISITA

Urtarritetik maiatzera bitartean 684 lagun erakarri zituen Elgetara Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroak: ikasleak, familiak, norbanakoak...



OÑATI

Zelaia organo-jotzailea omendu zuten ▲►

Julian Zelaia organo-jotzailearen omenezko ekitaldia egin zuten Santa Ana beteta zela, maiatzaren 18an. Pianoa, gitarra, biolina eta klarineta jo zuten, besteak beste, bilobek, eta Juan Karlos semeak baita organoa ere.

Oñatiko organo-jotzailea izan zen 30 urtez Zelaia. Mezak, hiletak, bederatziurrenak... parrokiako elizkizun guztietan jotzen zuen organoa, eta, horrez gainera, Eskola-Cantorum abesbatza zuzendu zuen.



ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkio autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.


Urte Berri On!



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruola

Montxon kalea 5 behea / 20560 / OÑATI
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20
Faxa: 943 78 31 36



Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala



Lan aholkularitza



Kontabilitatea



Zerga aitortpena

Zorionak eta Urte berri on!

Errementari plaza 2-3 behea • OÑATI

Zorionak eta
Urte Berri On!

Podologia Zentroa

Bidebarrieta 20 OÑATI Tel.: 943 53 36 37

Ordutegia: 09:30etik 13:30era - 15:30etik 20:00etara
podourratsoinati@gmail.com



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoaren ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak



CESPA


Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA
Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88
mondragon_cespa@cespa.es

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Bide garbiketak
- Barne garbiketak
- Hiri-zabor solidoen bilketa
- Gaikako zabor-bilketa: kartoia, ontzikiak, e.a...
- Kalegarbiketak
- Zabor bilketa
- Lorezaintza

Gabon zorionsuak
guztioi


**OÑATI
MARISOL
RAMOS**
KORRIKALARIA

Hiru domina eskuratu zituen, Finlandian, masterren Mundialean. Maratoi erdian urrezko bi domina irabazi zituen, eta brontzea 3.000ko proban.


**ELGETA
OIHANA
KORTAZAR**
KORRIKALARIA

Bigarren aldiz garaipena lortu zuen Zegama-Aizkorri mendi maratolian. Etengabeko euriak eta hotzak ez zuten munduko txapelduna moteldu.


**ARAMAIO
PABLO
BEITIA**
BILDUMAGILEA

Euskal Herriko txanponen katalogoa egin zuen, *Moneda de Euskal Herria* izenarekin. Garai guztietako txanponak deskribatzen dira bertan.

LEINTZ GATZAGA ETA ESKORIATZA
Gatzagan eta Eskoriatzan egin zen VIII. Mundumira ►►

Lehen aldiz, bi udalerriren artean banatu zen Mundumira jaia: Leintz Gatzaga eta Eskoriatza. Euskal Herriko doinuen bozgorailu eta atzerriko musikarien erakusleho izan zen berriz ere.

Dena den, gatzagarrek ez ziren oso gustura geratu Mundumirak herrian emandakoarekin. Iñaki Agirreurreta Gatzagako Kultura zinegotziaren arabera, ez ziren agindutako postu guztiak joan.


ARAMAIO
Basarri Barriren egoitza inauguratu zuten ▲

Aramaio Basarri Barri Fundazioaren Mendiako Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Zentroa ireki zuten maiatzaren 30ean. ABB Fundazioaren taldeek euren jarduna aurrera eramateko azpiegiturak, ezagutza eta elkarlana sustatzeko balioko du Mendiako zentroak.

Irekiera ekitaldian, besteak beste, Aramaio Udaleko, Zuia-ko Koadrilako, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren.



Zure diseinua gauzatzen dugu.

Serie laburrak
Prototipoak
Kontrol tresnak


Serie laburren fabrikazioa erronka handia da enpresa askorentzat. Ekide, ordea, espezialista da serie laburretan.

Gure elkar-ingeniaritza zerbitzuak, bezeroen lantaldeekin batera lan eginda, prozesuak eta materialak optimizatzea posible egiten du emaitzarik hoberenak eskainiz.

12 teknologiatik gora integratzen dugu eta prototipoak eta kontrolerako tresnak ere fabrikatzen ditugu. Honela, sektore ugaritako enpresen beharrei erantzuten diegu.

Gabon zoriotsuak

Urte berri on!

EKIDE S.L. - Tellería kalea F2 20500 Arrasate Tel. 943 71 25 43 www.ekide.es

Urte berri on, guztioi!



ARRASATEKO TABERNAK

Amets • Bengoa • Branka • Itzala • Kimetz • Lorategi • Okoretegi • Rumba • Txoko II

ARRASATE IÑIGO ARREGIREN 'ZERU ERTZARI BEGIRA' ESKULTURAK BADU LEKUA

Ekainaren 16an jarri zuten Iñigo Arregi eskultore arrasatearraren Zeru ertzari begira eskultura Trapagarango Meatzaldea Goikoa parkean, Ustion lakuari begira. Corten altzairuan eginda eta gorri kolorez jantzitako obra da eta hiru metroko altuera du.

BERGARA MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN BIDEOKLIPA GARAILE

LMFAOren Party Rock Anthem abestian oinarritutako Mariaren Lagundiko DBHko laugarren mailako ikasleen bideoklipa izan zen Gaztearen lehiaketako irabazlea. Hilaren 5ean jaso zuten albiste pozgarria eta 3.000 euroko saria jaso zuten.



ARRASATE
MARTIN
GARITANO
GIPUZKOAKO
AHALDUN NAGUSIA

"Goienak oso paper garrantzitsua jokatzan du, Debagoienean zein Debagoienetik kanpo"



BERGARA
IXOTZ
LOUYEST
TRANSEXUALA

"Osorik ikusten dut nire burua, ispilu aurrean, baita nire nortasunarekin"



OÑATI

Barraskilo espezie berria bi kobazulotan ►

Euskal Herriko Unibertsitateko, Frankfurteko (Alemania) eta Ljubljana (Eslovenia) ikertzaile talde batek kobazulotako barraskilo espezie berria aurkitu zuen Oñatiko bi kobazulotan: Sandailin eta Arrikruz-Oñatiko kobetan, hain justu. *Zospeum bellesi* espeziea da orain arte deskribatu gabekoa, zientziarako espezie berri bat. 1,3 milimetro inguruko luzera du. Hilaren 2an eman zituzten aurkikuntzaren gaineko xehetasunak.



BERGARA

Plakak herriko eraikin esanguratsuenetan ▲

Bergarako ondarea ezagutzera emateko Museo eta Turismo Sailak alde zaharrean eraikin esanguratsuenak nabarmendu zituen plaka batzuen bidez. Jauregi etxea, Erdi Aroko etxea, Artekalako ataria eta Irizar jauregia dira, besteak beste, plakak dituztenak. David Zapirain udal teknikariak honela azaldu zigun ekimena: "Bergarako ondareari bere erre-konozimendua eman zaio. Helburua eraikinen arreta deitzea eta benetako balioa ematea da".



ARRASATE

Kalitate ziurtagiria herriko 21 komertziori ◀

UNE 175.001 kalitate ziurtagiria eman zieten Arrasateko 21 komertziori hilaren 3an. Oñatin ere bi komertzioak jaso zuten agiria. Bezeroari arreta, emandako zerbitzua eta langileen profesionaltasuna hartzen dira aintzat ziurtagiri hori emateko orduan. Komertzio horien zerbitzua horren ona dela ulertzeko ezinbestekoa da Ibai-Arte elkar-tearen lan handia aipatzea: "Publikoki komertzioak oso maila onean daudela frogatzen du", uste du Jesus Mari Elkorok.

DEBAGOIENA SMARTPHONERAKO APLIKAZIOA ATERA ZUEN GOIENAK

Batura Mobile Solutions enpresarekin izandako elkarlanari esker, smartphonerako aplikazioa atera zuen ekainean Goiena Komunikazio Taldeak. *Goiena.net* ataria telefonora egokitu zuen. Doakoa da eta Apple zein Android sistemetan erabil daiteke.

LEINTZ GATZAGA BI KONPOSTAGAILU BERRI JARTZEKO ERABAKIA

Ekaineko azken astea hondakinen gainekoa izan zen Leintz Gatzagan. Hala, bi konpostagailu berri jartzea erabaki zuen Udalak orduan; bata 3.700 metro kubikokoa eta bestea 4.000 eta 5.000 artekoa. Azarorako martxan jartzea espero zuten.



ARRASATE
FERNANDO
RIVIERE
LEUZEMIA ZUEN
HAURRA

Hilaren 15ean, 11 hilabete zituela, egin zioten hezur-muin transplantea Fernando Riviere haur txikiari, Bartzelonako Val de Bron ospitalean.



ARRASATE
HARITZ
AZKARRAGA
TABAKALERAKO
GERENTEA

Ekain amaieran izendatu zuten Haritz Azkarraga Tabakalarako gerente. Izendatu zutenean esan zuenez, lehen helburu nagusia obrak bukatzea izango zen.



BERGARA
AITZIBER
PLAZAOLA
PRESO
OHIA

San Martin plaza bertsoz, kantuz eta danbor hotsez jantzi zen hilaren 21ean, Plazaolari ongietorria egiteko. Herritarren eta ingurukoen berotasuna jaso zuten.



BERGARA

Atez atekoaren kontra, ia 4.700 sinadura ▲

Herri plataforma batek abiatu-tako hiri hondakinen atez ateko bilketaren aurkako sinadura kanpaina batekin bat egin zuen EAJk eta ekainaren 14an eman zuten kanpaina horren berri. Agerraldian, Bergarako Udal Gobernuaren informazio falta salatzeaz gain, adierazi zuten atez atekoa bertan behera uztea lortu arte lanean jarraituko zutela.

Uztailaren 3an entregatu sinadurok batzen dituen notario-ak-ta udaletxean.



ARRASATE, ESKORIATZA, ARETXABALETA

Hondakinak biltzeko sistema berriek aurrera ◀

Arrasaten eta Eskoriatzan ekaineko osokoan onartu zen atez ateko biltzeko sistema. Arrasaten, zinegotzien arteko eztabaida biziez gain, protestak ere izan ziren. *Stop atez atekoa* plataformako zenbait kidek txistua jo eta Udal Gobernuaren kontrako paperak bota zituzten: *Alkateak, dimisioa* eta *Udaletxean zerbaitek ustel-usaina dauka*, besteak beste. Aretxabaletan izenik gabeko bilketa onartu zuten; derrigorrezkoa, gaikakoa eta pertsonalizatua.

ARRASATE

Mondrako nesken taldeak 25 urte bete zituen ▲

Mondrako emakumezkoen taldearen 25. urteurrena ospatzeko lagunarteko partidua jokatu zuten Mojategin hilaren 30ean. Partiduaren atsedendaldian Gio eta Oihana zendutako jokalariei omenaldia egin zieten, bi jokalaria ohien izenak zituzten kamisetak senitartekoei oparituz. Esti Loiti Mondrako jokalaria ohiaeren arabera, egun taldeak duen harrobiarekin taldeak etorkizun polita du. Eguna borobiltzeko bazkaria egin zuten.





Ondo pasau Gabonak!

ZAHARBERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak

Kalegoi 9-1 • ANTZUOLA
Tel./ Faxe: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51
E-posta: zabalos@hotmail.com

IGELTSEROTZA S.L.

ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

GABON JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33





itesa

Gabon zoriontsuak, guztioi!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA

Gabon zoriontsuak antzuolar guztioi!

**BERGARA****Hilda zeuden erakusleihoei kolorea emateko ekimena ▶▶**


Bergarako Erdigunea Koloretan ekimenaren barruan hutsik zeuden erakusleihoeak herriko artisten lanekin bete zituzten. Hilaren 23an bistaratu zituzten artelanok eta San Juan bezpera zela aprobetxatuz, herriko hainbat artistek lokaletan hauts artean gordetzen zituzten artelanak bota zituzten sutara. Herritarren artean oso erantzun ona izan zuen ekimenak; hainbat herritar batu zituen eta musika, abesbatza eta mokadutxo artean ederto ibili ziren.

**ELGETA****KONPOSTAGAILUA ESKATU ZUTEN 16 HERRITARREK**

Hilaren 4an Debagoieneko Mankomunitateak autokonposta hizpide zuen ikastaroa eskaini zuen udaletxean. Informazioa emateaz gain, konpostagailuak banatu zituzten; 16 elgetarrek eskatu zuten. Orduan, beste 40 bat konpostagailu zeuden herrian.

**OÑATI****Julian Zelaiaren irudia duen seilua ▶▶**

30 urtez Oñatiko parrokiako organista izandako Julian Zelaiaren (1916-1970) oroimenezko seiluak atera zituen Oñatiko CECA filatelia taldeak. Zelaia protagonista duen seiluan, organista famatua bera agertzen da organoa jotzen, atzean abeslariak dituela. Filatelia taldeko Luis Maiztegi adierazi zuen oso gustura geratu zirela emaitzarekin eta herritarrei ere gustatu zitzaiela: "Oso estimatuak dira filatelia taldeak egindako lanak".



25

URTE OLAZAR ELKARTEAK

Eskoriatzako Olazar erretiratu elkartearen 25. urteurren ospakizunak egin zituzten hilaren 17an. 630 bazkide inguru ditu egun elkarteak.

BERGARA**SORALUCEKO HIPERION PROIEKTUA GORAIPTATUA**

Eredugarritzat jo du Patxi Lopez lehendakariak Soraluze enpresaren Hiperion proiektua. Soralucek beste bost enpresarekin batera garatu du; uztailaren 25ean emaitzak aurkeztu zituzten, Osintxun, lehendakariaren eta Garitanoren aurrean.


OÑATI**ALOÑA MENDIKO NATRA-OÑATI TALDEAK EBA-N JARRAITUKO DU**

Natra-Oñati saskibaloia taldeak EBA ligan hutsik zegoen plaketako bat eskuratu zuen uztailan, 2012-2013 denboraldian ere EBAn jarraitu ahal izateko. Oñatin EBako punta-puntako saskibaloia ikusteko aukera izango da, hortaz.

1.000

BISITARI

Uztailaren 9an hasi zituzten Aretxabaletako Ibarra kiroldegian herritarrei zuzendutako bisita gidatuak eta lau egunean 1.000 herritar pasa ziren handik.

**ARRASATE LARRAITZ UGARTE**

BIDE AZPIEGITUREN FORU DIPUTATUA

"Errepide asko eraiki da, hausnartu barik, eta horiek ordaindu egin behar dira orain"

250

LITRO UR

Uztailaren 9an bailarako zinegotziek Urkuluko presa bisitatu zuten. Besteak beste, egunean, biztanleko, 250 litro ur gastatzen dugula jakin zuten.

OÑATI**Futbol Federazioak Aloña Mendi saritu zuen ▶**

Kirolzaletasunaren saria eman zion Gipuzkoako Futbol Federazioak Aloña Mendiko futbol sailari, urtero egiten duten ohiko batzar nagusian. Federazioko presidente Juan Luis Larreak eman zion saria Jabi Azpiazu futbol saileko presidenteari. Aloña Mendiko futbol saileko jokalariei, teknikari eta zuzendariak egiten duten lana eskertu eta goraipatzeko modua da saria, eta baita jokalarien senitartekoen jarrera ere.

ARRASATE**Debagoieneko Ospitale berria inauguratu zuten ▶**

Uztailaren 5ean inauguratu zuten Debagoieneko Ospitale berria, nahiz eta ekainaren 18tik martxan egon. Patxi Lopez lehendakaria, Rafael Bengoa Osasun sailburua, Antonio Arraiza Ospitaleko gerentea eta Amaia Larrañaga jarduneko alkatea egon ziren inaugurazio ekitaldian. Hain zuzen ere, Arraizak azaldu zuen ospitale berriak sei ebakuntzategela eta Suspertze Unitatean zortzi ohe dituela, gauez zabalik egongo direnak.

**ARRASATE****Uztailaren 30ean itxi zuten Ceciaga denda ▶**

Arrasateko denda ezagunetako batek agur esan zuen joan den uztailaren 30ean. Ceciaga etxeak ateak itxi zituen betiko 100 urte zabalik egin ostean. Otsailean eman zuten itxieraren berri. Denda likidazioan jarri zuten, arrasatearrek azken erosketak egiteko. Hala, uztailaren 30a izan zen mertzeriaren azken eguna. Egun hunkigarria bertako jabe Rosarito eta Loli Zeziagarendako eta Ines Gardoki eta Marimar Martin langileendako.



SUKALDEKO ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

oben

blum

FRANKE

BERGARA

Aitziturri 4, 193 posta-kutxa

Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49

E-posta: bergara@servimasa.com

LEZO

103 industria poligonoa

Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757

www.servimasa.com

Alda ezazu zure sukaldeko zorua obrarik egin gabe. 25 urteko bermea. Informa zaitez!

FAUS

blue

Sukalde eta bainuentzako zoru laminatu berezia

Zorionak

eta urte berri on!

LOFT GOA

URTEBERRI

LOFT TOSCANA

URTEBERRI

TXOMIN GARAJEA

Mekanika orokorra



Tailer profesionala

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON GUZTIOI!

IAT/ITVrako prestaketa

Negurako gurpiletan preziorik onena gurean

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77

Aixa

frutategia

Buztinzuri 6 behea ANTZUOLA

Tel.: 943 78 62 69



GABON JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!





ELGETA ELGETAKO PILOTA SAILA DESAGERTU EGIN ZEN

Uztailaren 1ean desagertu egin zen Elgetako Oskarbi pilota saila. Albiste triste hori administrazioak exijitutako baldintza berriek eta errelebo faltak eragin zuten. Erabaki horrekin, bertan behera geratu dira pilotarien prestaketa saioak eta pilota eskolak.



ARETXABALETA / ARRASATE ALBISTEGI eta ITURRINO ENTRENATZAILEAK

Alberto Albistegi Realeko jokalaria ohia fitxatu zuen UDAk entrenatzaile lanetarako. Mondrak, oster, Lutxo Iturrino fitxatu zuen.



ELGETA OXEL EROSTARBE ALKATEA

Oxel Erostarbek uztailaren 31n utzi zion legebiltzarkide izateari. Alderdiak apirilaren 4an eskatu zion akta itzultzeko; uztailaren 24an aurkeztu zuen idatzia.

ARRASATE

Langile bat hil eta beste bi zauritu, lan istripuetan ▼

Abiadura Handiko Trenaren Gesalibar auzoko obretan zebilen behargin bat hil zen uztailaren 12an, lan istripuan. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, hormigoizko pieza bat gainera erori zitzaion langileari.

Bestalde, uztailaren 26an Fagor Arrasatek Nafarroa etorbidean duen lantegian izandako leherketa batean bi langile larri zauritu ziren. Disolbatzaileak su hartu, eta, ondorioz, leherketa gertatu zen.



ANTZUOLA

'Uzarraga zutik' lagun taldea sortu zuten ▲

Jose Mari Iturbek eta Juanjo Aranburu *Pollero*-k Uzarragako elizatea zutik mantentzeko helburuarekin *Uzarraga zutik* lagun taldea sortu eta martxan jarri zuten. Taldearen asmoa herritarrek sentibilizatzea eta Uzarragako ondarea herritarrei zutik mantentzeko eskatzea da. Horrelako elizak auzolanean mantendu izan direla diote, eta horregatik herritarren artean lan egin nahi dute.

ARAMAIO

Murugaingo indusketa lanak, auzolanean aurrera ▲

Uztailaren 16an eta 17an Ondare Babeseko arkeologoen eremu berria egokitu zuten, uztailaren 18an auzolandegietakoek dena prest izan zezaten. Izan ere, uztailaren 18an Murugaingo indusketen bigarren fasea hasi zuten. Auzolanean egin zituzten lanok; dena, bederatzi aramaioar elkartu ziren. Bigarren faseko indusketak uztailaren 28an amaitu zituzten.



ARRASATE MALEN RUIZ DE AZUA PERTIKA-JAUZILARIA

Malen Ruiz de Azua arrasatearrak gazte mailako Espainiako pertika txapelketa irabazi zuen uztailaren 8an. 3,75 metroko jauzia egin zuen Aranjuezen.



ARRASATE MAIALEN AXPE PERTIKA-JAUZILARIA

Maialen Axpe arrasatearra 24. saikatu zen Bartzelonan jokaturako munduko gazte mailako atletismo txapelketan. 3,85eko marka egin zuen

ESKORIATZA PEÑAKARGA ELKARTEA SORTU ZUTEN AUZOLANEAN ARITZEKO

Taldea duela 20 urte sortu zuten, baina uztailaren estatutuak eratu eta formalizatu egin zuten. Lau kilometroko pistaren kudeaketaz arduratuko dira; Mendiolan hasi eta Kurtzebarri aldamenean dagoen Kargalekurainoko. 50 bazkide dira elkartearen.



ARRASATE

Goiena beharrezkoa eta plurala dela diote ◀

Azti enpresak Goienaren hedabideen gaineke azterketa egin zuten, eta uztailaren 5ean erakutsi zituen emaitzak. 800 debagoien-darri egindako galderen ondorioa izan da premiazkoa eta plurala dela Goiena hedabide taldea. Herri-tarrek informazio lokala eta euskaraz izatea baloratzen dute, gehienbat, eta papera da nagusi eta erreferente. Inkestak urtarri-laren 26tik otsailaren 10era egin zituzten, 15 eta 54 urte arteko debagoiendarrei.



OÑATI

Gandiaga omendu zuten Gandiaga topagunean ►

Uztailaren 21ean Bitoriano Gandiaga zena omendu zuten Arantzazun. Frantziskotarra eta idazlea "animalia bizi-bizia eta sentikorra zen", azaldu zuen Pello Zabalak. Gandiagaren olerkiak errezitatu bitartean, haren bizitzako pasarte esanguratsuenak ekarri zituen gogora Zabalak. Gandiagaren bizitzako pasarteak erakutsi zituzten: zuhaitzarena, txakolinarena... Gandiagan Gandiagaren bila ibili ziren, eta, Pellori esker, baita topatu ere.



ARRASATE ETA OÑATI

Atez atekoaren aurkako sinadurak batu zituzten ▲

Atez atekoaren kontra eta bosgarren edukiontzia den alde jasotako 6.686 sinadura entregatu zituzten BAZen uztailaren 20an Arrasate Garbi eta Stop Atez Ate plataformek. Sinadura horiek notario-aktan jasotakoak dira; baina esan zuten denboraz kanpo beste 1.000 sinadura inguru jaso zituztela.

Bestalde, agerraldia egin zuten atez atekoaren kontrako taldeak Oñatin, uztailaren 19an, batutako 2.325 sinadurak aurkezteko.

ileak

mari karmen ile apaindegia

Gabon zoriontsuak izan!

san lorentzo 9 a behea
tel.: 943 72 60 46
OÑATI

Andra Mari auzunea 3 Behea
ARETXABALETA
Tel./Faxa 943 79 29 26
joseluis@asesoriaandramari.com

ANDRA MARI

AHOLKULARITZA

FISKALA • KONTABLEA
LABORALA • DEFENTSA JURIDIKOA

Jai Zoriontsuak
eta
Urte Berri On!

ascensores • igogailuak
debagoiena

943 04 40 01 / 691 52 22 04
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com

INFORMA ZAITEZ

Debagoiengan igogailuen mantentze-lanak

Gurekin 24 ordu, asteburuak barne

Mantentze-lanak:
80 € basikoa
115 € arrisku orotakoa

GABON ZORIONTSUAK, GUZTIOI!

BERGARA

RAMADANA BUKATZEKO
OSPANIZUNA EGIN ZUTEN

200 bat lagun elkartu ziren Bergarako meskitaan ramadana bukatzeko. Bailerako eta inguruko herrietako hainbat musulman elkartu ziren bi otoitzaldi egiteko eta baraualdiarengatik zoriontzeko. Bada, meskita lepo bete zen.

ELGETA

DIRULAGUNTZA, MEMORIA
HISTORIKOAK BERRESKURATZEKO

Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 3.117,90 euroko laguntza onartu zuen Elgetako Udalarendako, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrorako. Era berean, beste erakunde batzuek laguntza ere onartu zuen.

OÑATI

TXERNOBILGO ZAZPI UME
OÑATIN, OPORRETAN

Oñatiko Banoia Txernobil elkartearen bidez zazpi neska-mutiko egon ziren udako oporretan gurean. Bi hilabetez egon ziren euren harrera-familiekin. Abuztuaren 25ean hartu zuten Ukrainiara itzultzeko hegazkina.



OÑATI

Mendi lasterketetarako
talde berria ▲

Mendi lasterketak zaletasun dituzten hainbat oñatiarrek Oñati Trail taldea sortu zuten. "Mendiko lasterketa eta martxetan aritzen garen lagun koadrila batek osatu dugu taldea. Aretxabaletako M5 kirol-dendaren babesari esker 13 korrikalarik ekipazio berberarekin korrika egingo dugu", esan zuen aurkezpenaren taldeko kide Iker Agirrebaltzagetik. Taldearen gaineko informazio gehiago <http://onatitrail.blogspot.com.es> blogean duzue.

ARRASATE

Auto bat erreta agertu zen
Nafarroa etorbidean ►

Abuztuaren 19an auto bat erreta agertu zen Nafarroa etorbidean. 05:50ean, auto bat erretzen zebilela-eta abisua jaso zuen Ertzaintzak. Gertaeraren tokira, Nafarroa etorbidera, heldu zirenean, su-itxalgailuarekin itzaltzen ahaleztatu ziren, baina ez zuten lortu. Hori horrela, Zubillagako suhiltzaileei deitu eta hango hiru kamioi gerturatu ziren sutearen lekura. Haiek kontrolatu zuten sutea. Autoa kiskalita geratu zen, batez ere, barrutik.



ARRASATE

Hondakin ez arriskutsuen
zaborteigiko lanak abian ▲

Epeleko hondakin ez arriskutsuen zaborteigian lanak hasi zituzten bi hondeatzailek abuztuaren 7an. Urtebeteko iraupena izango dute, eta han egiten diharduten lanak dira: zaborteigian zati bat zigilatu, gelaxka berri bat sortu eta garbigune berria egin. Debagoieneko Mankomunitateak dauka Epeleko zaborteigiko lanen ardurara, eta Murias enpresari esleitu zizkion lanak, bi milioi euro pasako aurrekontuarekin; zehazki, 2.172.559,17 euro.

ELGETA

BOLATOKI BERRIA INAUGURATU
ZUTEN SALBADOR EGUNEAN

Salbador eguna ospatu zuten abuztuaren 6an Elgetan. Askotariko ekitaldiak egin —meza entzun, pintxoak jan, elkarrekin afaldu...—, eta auzolanean eraberritutako bolatokia estreinatu zuten. Han jokatu zuten bolo txapelketa.

3.332

LANGABE

Horiek ziren abuztuaren Debagoienean zeuden langabeak. Azken bi urteotako abuzturik txarrena izan zen. Langabezia tasa %11,18 zen orduan.

OÑATI

'BAGOIA!' MUGIMENDUA
AURKEZTU ZUTEN

Alberto Plazaola preso oñatiarrari elkartzuna adierazi eta haren aldeko hainbat ekimen antolatzeko, *Bagoiaz!* mugimendua aurkeztu zuten. *Parot doktrina* aplikatuta Plazaolak 2016a arte kartzelan jarraituko duela salatzen zuten.



OÑATI

EKHI
GALDOS
SALTO TXAPELDUNA

Urteroko Surf Festaren barruan, salto txapelketa egin zuten Usakon. 11 lagunek parte hartu zuten eta Ekhi Galdosen saltoa izan zen onena.

ELGETA

OIHANA KORTAZAR,
ESPAINIAKO KOPAN NAGUSI

Otañesen (Kantabria) jokaturako laugarren eta azken proba irabazita, Espainiako mendi lasterketen kopa irabazi zuen elgetarrak abuztuaren 26an. Otañesko probak 34 kilometro zituen, eta Kortazarrek agindu zuen hasieratik bukaera.

ARRASATE

Sute txikia Arrasateko
Fagor Ederlanen ▼

Gasezko labe batek su hartu zuen abuztuaren 17an Arrasateko Fagor Ederlanen. Sutea 10:00etan hasi zen, eta lantegian zeuden langileak kalera irteten ziren Zubillagako suhiltzaileek euren lana egiten zuten bitartean.

Suhiltzaileen hiru kamioi joan ziren Fagor Ederlaneraino, eta berehala itzali zuten gasezko labeak zuen sutea. Ertzaintzak emandako datuen arabera, kalteak labeen bakarrik egon ziren, eta ez zen zauriturik egon.



ARAMAIO

Brontzezko domina Maider Undarendako ▼◀

Londresko Joko Olinpiarretan brontzezko domina jantzi zuen Maider Unda oletarrak abuztuaren 9an. 72 kilokoaren artean borrokatu zen Unda, eta hiru lehia irabazi behar izan zituen domina janzteko. Azkenia, hirugarren eta laugarren lekuak zehazteko, Vasilisa Marzalyuk bielorrusiarraren kontra. "Pozik eta gustura" jantzi zuen domina, Londresen zeuden etxekoen eta lagunaren artean.



KANPAZAR

Zorionak eta urte berri on!



Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • Faxe: 943 77 12 84

ARTISAU-PATEAK • AHATEKIAK • FOIE-GRAS • PIPARRA • TXISTORRA

Zubia pateek urte berri ona opa dizute!

Aingeru Guarda Pasealekua 17 • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 31 • Faxe: 943 71 52 79
www.pateszubia.com

Elgetako Udala

URTE BERRI ON!

www.elgeta.org

EAJ
PNV

Eskerrik asko, Debagoiena, zuen konfiantzagatik.

Debagoieneko EAJ

ARRASATE SOZIALISTEK EGOITZA BERRIA INAUGURATU ZUTEN

Irailaren 14an inauguratu zuten sozialistek egoitza berria —eta ondoan duen taberna—. Eta Patxi Lopez lehendakaria izan zen jende asko batu zen inaugurazio ekitaldian. Paco Gartzia adierazi zuen ateak herritar guztiendako izango dituztela zabalik.

DEBAGOIENA ZORTZI BASERRITAKO PRODUKTUAK 'ON LINE' SALGAI

Baserrisarea.com webgunea sortu zuten landa eremuen gaineko informazioaz, eta, besteak beste, baserritarren nekazaritzako jarduerak sendotzeko asmoaz. *On line* atalean ibarreko zortzi baserriren eskaintzaz hasi ziren.

BERGARA EGUN ETA ERDI 52 METROKO GARABI BATERA IGOTA

Gizonezko batek, Miguel La Huertak, egun eta erdi eman zuen 52 metroko garaieradun garabi batera igota. Bergararra Genero Indarkeriaren Aurkako Legea salatzeke igo zen garabira, eta gerta zitekeenaz Espainiako Gobernuak egin zuen erantzule.



OÑATI

'Arantzazu Erreka I' kobaren esplorazioa amaitu zuten ▲

Lan mardula eta sakona egin ostean, Aloña Mendi Espeleologia Taldekoek (AMET) hiru kilometroko kobazulo baten esplorazio lanak bukatu zituzten. *Arantzazu Erreka I* da koba horren izena eta 3.038 metro ditu. Hala, Oñatiko bigarren koba luzeena da.



DEBAGOIENA

Grebak jarraipen handia izan zuen gurean ▲

Irailaren 26ko greba orokor deialdiak jarraipen handia izan zuen gurean; batez ere, industrian, udaletan eta komertzioan izan zuen eragina. ELA eta LAB sindikatuak oso pozik azaldu ziren grebaren emaitzarekin.

ELAren hitzetan, Debagoienean, kooperatibak alde batera utzita industria ia erabat geratu zen, eta baita komertzio eta dendak ere. Gipuzkoako patronalaren esanetan, gipuzkoarren %60 lanean joan ziren.

BERGARA

Uliazpi zentroa: 10 urte Debagoienganean lanean ►

Adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familiakoen bizi kalitatea garatzen eta hobetzen laguntzen eman du azken hamarkada Bergarako Zubillaga Doktorea zentroak.

Debagoien osoko erabiltzaileak ditu Uliazpi zentroak, eta, "gainontzekoak bezalakoak" direla erakusteko, argazki erakusketak antolatzen zuten, besteak beste, urtemugaren aitzakian. Izan ere, aurrean hamar urte bete dituzte.



Orain, Super Amaran ere bai!

Gabon zoriontsuak igaro!

Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

1942a ezkerre

**Aro berriko
sukalderako tresneria**

San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Webgunea: www.ibili.net

Zorionak eta Urte berri on!



Julian Korta eta Maximo Zumalde artzain oñatiarrak omendu zituzten Legazpin egindako Gipuzkoako Artzain Egunean.



Gasteizko Urrezko Zeledoiaren ereserkia egiteagatik albiste izan zen Sabin Salaberri konpositorea. Hilaren 14an estreinatu zuten lana, Gasteizko Principal Antzokian.

BERGARA LOURDES IDOIA GAREN AURKAKO PANKARTAREN KONTRA, MOZIOA

Irailaren 24ko osoko bilkuran Lourdes Idoiak aparteko protagonismoa izan zuen. Izan ere, EAJk mozio bat aurkeztu zuen Oñatiko alkate ohiaren aurka Bergarako Gaztetxean agertutako pankarta baten harira. Mozioa aho batez onartu zuten.

ARRASATE 'HAMAHIRUAK HERRIRA' ALDARRIKATU ZUTEN AMAIA

Herrira taldeak agerraldia egin zuen irailaren 23an Amaia antzokian, gaixo dauden presoek eskubideen aldeko iniziatibak aurkezteko. Hausnarketarako dei egin zuten, besteak beste, Josu Uribetxeberriaren egoera berriro ez errepikatzeke.

500

LAGUN EUSKARAREN ALDE KORRIKA

Euskaraz bizi nahi dut leloa paparrean hartuta ia 500 lagunek egin zuten korrika Arrasaten. Guztira, 400 gaztetxo izan ziren, eta 90 heldu.



OÑATI

Gazte Asanbladak Antixena okupatu zuen ◀

Antixena etxea okupatu eta gaztetxe bihurtu zuten herriko hainbat gaztek irailaren 5ean: "Eraikina Udalarena eta eta MUK erabiltzen du, baina hutsik egon da azken bi urteetan", zehaztu zuen Eñaut Uribesalgok ehun bat gazte bildu ziren prentsaurrekoan.

Eraikina okupatu aurretik horren berri eman zioten Oñatiko Udalarari eta MURI: "Herriko gazteon gune aske moduan erabiltzea da gure asmoa", gaineratu zuten.



DEBAGOIENA

Atez atekoaren "zorakeria" geratzeko eskaria EAJk ►

EAJko ibarreko hautetsiek salatu zuten bailarako Mankomunitateak zazpi milioi euro bideratu zituela atez atekoa ezartzeko, "inongo planifikaziork gabe".

Hala, atez atekoaren kontra zeudela adierazteko prentsaurrekoa egin zuten: "Daukagun indar guztiarekin zera eskatu nahi dugu: gera dezagun zorakeria hau". Berba horiek erabili zituzten ibarreko hautetsiek, eta gogoratu zuten sistema horren kontra 5.622 sinadura batu zituztela gurean.



ARETXABALETAKO

MUren fakultate berria, gertu eta erabilgarri ▲

MUKo Ikus-entzunezko Komunikazioko 120 ikaslek irailaren 18an estreinatu zuten Aretxabaletako fakultate berria. Ikasketa horiei begira antolatuta eta hornitu dute eraikina, eta arduradunak oso pozik azaldu ziren emaitzarekin.

Bizkaia kalea 1 Aretxabaleta
943790807
mobiliarioarenaza@hotmail.com

Gabon zoriontsuak gurtziori!

ELAY Taldea

**BIKINTASUNARI BEGIRA
EGINDAKO LANA**

Lizarragako Hiribidea z/g
20577 Antzuola
Gipuzkoa
Tel.: 943 76 61 00
Faxe: 943 76 62 62
www.elay.com


DEBAGOIENA
BEÑAT HERCE
 DEBAGOIENeko
 INDUSTRIALDEKO
 PRESIDENTEA

"Industrialdeen fusioak ekimen publikokoen amaiera ekar dezake"

ARETXABALETA IRAILAREN 3AN ZABALDU ZUTEN IBARRA KIROLDEGIA

Astebete lehenago ate irekien jardunaldiak egin zituzten arren –herriar mordo animatu zen igerilekuak probatzera–, irailaren 3an zabaldu zuten ofizialki Ibarra kiroldegia. Hala, lau urtez zain egon ostean aretxabaletarrek badute kiroldegia.

OÑATI OMENALDI JENDETSUA EGIN ZIOTEN LUCIO MUÑOZI

Herriar askorekin batera izen handiko artistak batu ziren irailaren 15ean Arantzazun, hango absidearen egilea zen Lucio Muñoz (1929-1998) omentzen. Semeak adierazi zuen aitarendako oso garrantzitsua zela abside hori, egin zuen lehena izan zelako.



OÑATI

'Dukearen etxeko' lorategi noblea herriarendako ▶▶

Martinez de Irujo familia noble ezaguneko seme-alabak umetan Oñatin uda asko pasatu izandakoak dira, Lazarraga etxean, hain zuen, Oñatin *Dukearen etxea* moduan ezaguna. Eta urriaz geroztik betidanik pribatua izan den lorategia herriarendako zabalik dago. "Oho-rea da nire lorategia Oñatiko monumentoen multzoan egotea, eta herriarendako izatea", adierazi zuen Carlos Martinez de Irujok.



ARRASATE

Preso eta erbesteratuiei babesa emateko: Harrera ◀

Harrera Elkartea aurkeztu zuten irailaren 5ean, "gatazka politikoaren ondorio diren preso eta erbesteratuak (...) eskubide guztiak, besteak bezala, euskal herritar izan daitezten". Arrasaten egin zuten aurkezpena, baina Euskal Herri mailan jarduteko helburua azaldu zuen preso ohien artean sortutako taldeak. Gainera, 2012. urteak aurrera egin ahala, Debagoiengan, herriz herri eratu ziren tokian tokiko Harre-ra elkarteak.

BERGARA

San Martinek munduan utzitako arrastoaren berri ▶

Iraileko hirugarren asteburuan ekimen mordo egin zituzten Bergaran herriarrek San Martin Agirre zenaren nondik norakoak gertuagotik ezagutzeko. Udaletxe ondoan dagoen Surragako gurutzean erreplika jarri zuten, hainbat bideo emanaldi egin zituzten eta urteroko danborradaren amaieran –oso jendetsua izan zen– martiriaren antzezpena egin zuten (argazkian).



TELAETXE


Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan



Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

OÑATI HILETA ETA OMENALDI ZIBILAK SANTA ANA ARETOAN

Urritik aurrera egin ahal dira hileta eta omenaldi zibilak Oñatin. Udalak zehaztu du Santa Ana aretoa, honen sarrerako kristalezko gune itxia, Santa Anako lorategia eta hilerriaren aurrealdeko parke irekia erabil daitezkeela horretarako.

OÑATI SU HARTU ZUEN URBIAKO FONDAN, ETA TEILATUA ERRE ZEN

Urriaren 23an piztu zen sua sukaldean, eta teilatua ere erre egin zen. Inguruan ziren mendizaleen eta artzainen artean itzali zuten; izan ere, suhiltzaileak Aguraindik iritsi orduko itzalita zegoen. Guztia txukundu ostean zabaldu zuten atzera ere fonda.


ARRASATE
IBAN VELASCO
 TXIRRINDULARIA

Iban Velascok urriaren 15ean sinatu zuen Caja Rural taldearekin kontratu berria, urtebeterako. Etapa berri baten atarian pozik zen arrasatearra.


BERGARA
GONZALEZ
AITA-SEMEAK
 MUSIKARIK

Urriaren 30ean mila bat lagun batu ziren Bilboko Euskaldunan Miguel Gonzalez Bastida eta Alfredo Gonzalez Chirlaque aita-semeak omentzeko.


ANTZUOLA
AITOR
MENDIZABAL
 PILOTARIA

Nahiz eta denbora laburrean, Aitor Mendizabal onenekin batera izan da aurtun lau t'erdiko pilota txapelketan. Arretxe II.ak kanporatu zuen, 22-13 irabazita.



DEBAGOIENA

Atez atekoaren informazio bulegoa zabalik ▶

Urrian atez atekoarekin lotutako hiru deialdi argitaratu zituen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak; tartean, ontziak eta zintzilikariak esleitzeko deialdia. Debagoieneko Mankomunitateak, berriz, atez atekoaren gaineko bideragarritasun ekonomikoa aurkeztu zuen. Goiko argazkian Oñatiko Kale Zaharreko informazio bulegoa agertzen da: urriaren 22an zabaldu zituen atekak.



ESKORIATZA

Zu Behar Zaitut elkarteak sortu dute guraso batzuek ◀▶

Gutxitasunak dituzten umeen aisialdia lantzeko Zu Behar Zaitut elkarteak jaio zen urrian Eskoriatzan. Euren seme-alaben integrazioa dute gurasook helburu, eta finantzazio iturri moduan aluminioa batzeko kanpaina ipini zuten martxan. Goiko argazkian agertzen dira elkartearen sortzaile diren Silvia Mendizabal eta Marisol Andrade, Haritz eta kotxetxoan Lorena, bi lagunekin.






Ate sektionalak





Pertsianak



Motorizazioak

Garajeko atekak
Segurtasunezko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko aginte tresna homologatuak
Oinezkoen atezatzako
sistema automatikoak

Gabon zorientsuak,
guztioi!

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17 • 110 PK • ARRASATE
 jubarateak@euskalnet.net • www.jubarateak.com

%65

ENERGIA

Urriaren 10ean Oñatin zabaldu zuen Eroskik Europako lehen denda guztiz jasagarria. Ohiko denda batek baino %65 energia gutxiago behar du.

BERGARA EUSKAL HERRIKO SKETCHCRAWL MARRAZKI MARATOIA

Urriaren 14an *SketchCrawl* edo marrazki maratoia Bergaran egin zuten lehenengo aldiz. Beart Bergarako arte elkarteak deituta, Euskal Herri osotik etorritako 24 marrazkilari elkartu ziren. Egun berean mundu osoko beste 86 tokitan gauzatu zen ekimena.



DEBAGOIENA

Atez ateko plataformen koordinakundea jaio da ▶

Urriaren 17an aurkeztu zuten Donostian Gipuzkoako atez ateko plataformen koordinakundea. Plataforma horretako kide dira Debagoienekoak ere. Agerraldian historikotzat jo zuten atez atekoaren kontra 70.000 sinadura batu izana, eta berretsi zuten atez atekoa sistema garestia, zikina eta pertsonen eta familien intimitatearen kontrakoa dela. Herri kontsultako eskaria Batzar Nagusietara erroten bada, babes-tu egingo dutela adierazi zuten.

DEBAGOIENA

Euskarazko telebistek, Gipuzkoarako albistegia ▶

Goiena, Goierri, Tolosako 28. Kanala eta Hamaika telebistek *Gurean gaur* albistegia aurkeztu zuten urrian; euskarazko telebistek Gipuzkoarako batera egiten duten albistegia, hain zuzen ere.

Hala, urritik, egunero-egunero, sarean, albistegi bateratua emititzen dute lau telebistek. Albistegiaren izena *Gurean gaur* da eta aurkezle lanak Nagore Uriarte kazetari bilbotarrak egiten ditu.



ELGETA ARRAKASTATSUA LEHENENGO 'ELGETA KANTUAN' EKIMENA

Urriaren 29an egin zuten lehenengo aldiz *Elgeta kantuan* ekimena. Egurdiko txikiteoan, Jose Gardokiren eta Beñat Leanizbarrutiaren konpainian 60 bat pertsona ibili ziren kalez kale eta tabernaz taberna euskal kantu zaharrak abesten.

ARETXABAETA

'Mozkorra' tomatearen aurkezpena ◀

Aretxabaletarrek, orain, gehiago ezagutzen dute *Mozkorra* tomatea. Herriko tomatea da, oso estimatua leku askotan, eta Koldo Zubizarreta aretxabaletarrak hitzaldia egin zuen urrian herriararren artean ezagutzera emateko.

Mozkorra tomateak Euskadi mailako saria jaso zuen tomate-dastatzet baten, eta haren haziak Zaragozako hazitegian dituzte gordeta. Helburua da Aretxabaletako *Mozkorra* tomate klasea ez galtzea.



OÑATI

Azpiazuren ondarea Suitzatik Oñatira ▶▶

Jose de Azpiazu musikaria protagonista izan zen urrian Oñatin. Bere jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko kontzertu berezia egin zuten Bidaurretan monasterioan. Xabier Ugartek, Amaia Azpiazuk eta Lupe de Azpiazuk egin zuten. Bestalde, Jose de Azpiazuren artxiboa ia osorik ekarri zuten Suitzatik Agustinoetara. Liburutegi osoa eta milaka partitura. "Ziur nago hemen baino hobeto inon ez dagoela", esan zuen haren alaba Lupe de Azpiazuk.



ARAMAIO SAGARDO ETA SAGAR-ZUKUA EGITEN MENDIOLAKO ZENTROAN

Mugimendu handia izan zen urrian Aramaio Baserri Barriko Fundazioarendako propio egindako Mendiolaoko zentroan. Maiatzean inauguratu zuten zentroa, eta urrian galtzak bete lan ibili ziren sagardoa eta sagar-zukua egiten.

ARRASATE EUSKADIKO KUTXAREN ETA IPAR KUTXAREN BATEGITE PROZESUA

Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak entitate juridiko bakarra sortzeko eskritura publikoa sinatu zuten urriaren 31n. Kooperatiba proiektu horri esker, Euskal Herriko bigarren finantza entitatea eta Estatuko bigarren kreditu-kooperatiba bilakatu da.



"Mondragoeko kooperatibetan pertsonari ematen diogu boterea"

ARRASATE

Josu Uribetxeberria atzera etxean ▶

Baldintzapeko askatasunean, urriaren 24an, iritsi zen Josu Uribetxeberria Arrasatera. 15 urte espetxean egin ostean komunikabide ugari elkartu ziren haren etxe atarian. Herrikideek Irati tabernan egin zioten ongietorria.

Minbizia du Uribetxeberriak, eta luze jo zuen haren etxeratzeak. Orain, etxetik jarraitzen du gaixotasunaren aurkako tratamendua. Tarteka, Donostiako Ospitalera joan behar du.



ARETXABAETA

Kuku-Miku elkartea jaio da; gurasoen bilgune ◀

Durana kaleko 30. atarian lokal eder batekin eta 25 familia bazkiderekin hasi zuen ibilbidea Kuku-Miku elkarteak, Aretxabaletan. Hazkuntza edo krianza taldea da, eta 6 urterta artekoen gurasoen bilgune izan gura du. Gidari berezi baten laguntza ere badute: Ana Bacigalupe ama eta *doula*, hain zuzen ere. Lehenengo pausoa sorrera batzarra egitea izan zen. Denbora honetan hazkuntzaren gaineko formazio saioak egin dituzte.



GOIKOETXE HARATEGIA



Salvador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

ZORIONAK eta urte berri on !

ILE ADAINDEGIA

Gabon jai zoriontsuak

Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA



EuroTaller

Murillo Garajea

Auto konponketak orokorrean

Gabon zoriontsuak bergarar guztioi!

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

BEHI-ALDE ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olavea-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Arrasate

urte berri on!



Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15



DEBAGOIENA
IBAN
ARANTZABAL
GOIENAKO
ZUZENDARI Nagusia

"Erronka nagusiak dira Goiena herritarrekin egitea eta hiperlokaltasuna"

ARETXABALETA
UDALAK HONDAKINEN GAINEKO 'IDEIEN ZAPARRADA' DEITU ZUEN

Aretxabaletako Udalak hiri hondakinene kudeaketa sistemen proposamenak jasotzeko *Ideien zaparrada* deitu zuen. Ezagutza eta kreatibitatea piztearekin batera, egungo sistemek dauzkaten gabeziak zuzentzea eta ideia berriak jasotzea zen asmoa.

ARETXABALETA
UDAL KULTURA SAILA HASI ZEN ZUZENEAN ARKUPE KUDEATZEN

Urriarekin batera bukatu zitzaion kontratua Arkupe kultura etxea kudeatzen zuen Amalur enpresa bizkaitarrari. Udalak erabaki zuen Kultura Sailak zuzenean kudeatzea, eta arduradun nagusia Inma Miguel da, Kultura teknikaria, azaroa ezkerro.



BERGARA

Gaztetasun giroa iritsi zen Trinitate komentura ►►

Bizilagun berriak ditu azaroa ezkerro Bergarako Trinitate monasterioak: San Juan eta Santo Domingoren 19 ahizpa. Urriaren amaieran moja klaratarrek komentua utzi ostean etorri ziren ahizpa berriak Bergarara.

Kontenplazioko bizitza egiten dute hamaika herrialdeetatik etorritako 20 eta 25 urte bitarteko gazteek: otoitz egin eta ikasteaz gain, ortuan lan egiten dute, eta antxikika ere egiten dute.



DEBAGOIENA

Stop Kaleratzeak taldea sortu zen Debagoienean ◀

Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataforma aurkeztu zuten azaroaren 20an Arrasateko udaltxeko osoko bilkuren aretoan. Taldea irekia dela aipatzearekin batera, nabarmendu zuten bailaran ere kaleratze kasuak gertatu izan direla. Horren harira, Aretxabaletako baten berri eman zuten, eta Oñatin beste hiru kasu ezagutzen zituztela jakinarazi zuten. Kaleratzeen arazoarekin amaitzeko eskatu zieten udal agintariei.



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Eguneko menua
- Karta

Maulanda merenderoa

Urte berri on!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 678 62 74 85

ARETXABALETA
SU TA GAR-EN BIDEOKLIP BERRIA ARTEMANEK EGIN ZUEN

Su ta Gar Eibarko musika taldearen *Zain zure zain* kantua bideoklip berria grabatu zuen Artemanek. Espainiako gerrako aurreko sasoiaren giroa dagoen lana Azpeitiko tren museoa grabatu zuten, estra askorekin eta aktore ezagunekin.

DURANGO
AURREIKUSPENAK GAINDITU ZITUEN KOOPERATIBEN FESTAK

Arrakastaz bukatu ziren Kooperatiben Nazioarteko Urteko ospakizunak, aurreikuspenak gainditu zituen-eta Konfekoop kooperatiben federazioak azaroaren 11n Durangon egindako Kooperatiben Festak. 37 kooperatibak antolatu zuten.




OÑATI
JOSU ZUBIA
GIPUZKOAKO KANTU
TXAPELKETAN
HIRUGARREN

Josu Zubia ofiatiar gaztea Gipuzkoako Kantu Txapelketan hirugarren geratu zen. Gitarra hartu eta *Ilargi bete*a abestia kantatu zuen.



BERGARA
IKER GALAN
GAIXOTASUN
MITOKONDRIALA
DAUKA

Gaixotasun mitokondrialia du Iker Galanek; horri buruzko bi ikerketa bertan behera gera daitezkeela-eta, aurrera egin dezaten tapioak eta telefono batzen hasi ziren.



BERGARA
BEÑAT REZUSTA
MUNDUKO
TXAPELDUN
PILOTAN

Bergarako Beñat Rezusta pilotariak Munduko Txapelketa irabazi zuen buruz buruko modalitatean, Frantzia. 22 urtez azpikoan mailan lortu zuen txapela.

ARRASATE

Caritasak jantoki soziala ireki zuen Uribarrin ►

Krisiaren eraginez, bailarako jende gehiagok jotzen du Caritasera, eta, horrek eraginda, ahalgin berezia egin behar izan du amaitzera doan urtean, eta zenbait proiektu garrantzitsu jarri ditu martxan: Arrasaten, esaterako, jangela soziala ireki zuen azaro hasieran, Uribarri auzoko apaiz-etxe ondoko lokalean. Bospasei lagunekin taldea arduratzen da astelehenetik domekara bitartean dozena bat bazkal-tiarri jaten emateaz.



BERGARA

Madrilgo 'El Gallinero' -ko 37 ume ijitoriaren bisita ▼

Madrilgo Cañada Realgo *El Gallinero* txabola-herririkako 37 gazte-txo gurean izan ziren. Azaroaren 8an Elosuko apaiz-etxera iritsi ziren 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoak, Cañada Realgo lau boluntariorekin. Besteak beste, Gomiztegi, Arrikruzteko kobak eta Donostiako Aquariuma bisitatu zituzten. Bergarako Mariaren Lagundiko Gizarte Integrazioarako goi mailako hezkuntza zikloko ikasleek proposatutako proiektuarekin etorri ziren.



DONOSTIA

Hekimen sortu zen, euskal hedabideen elkarteak ◀

Hekimen elkarteak sortu zen azaroaren 21ean, herri izaerako euskarazko hedabideen elkarteak. 50 hedabidetik gora batzen ditu; tartean, Goiena Komunikazio Taldea. Eta Iban Arantzabal Goienako zuzendari nagusia da elkartearen presidentea, Tokikomeko ordezkari. Euskal hedabideen elkarlana bideratzea du helburu, ho nako ezaugarriak kontuan izanda: hedabideetan euskara hutsez jardutea eta publikoak ez izatea. Irudian, elkartearen kideak, aurkezpenean.

Promociones

Erregetxo Plaza

Bergara

Bergarako hirigune historikoan

63 etxebizitza, libre, tasatu, BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18

LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

www.promocioneserregetxoplaza.com

Zorionak eta urte berri on 2013

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.

Zorionak eta urte berri on!

1,9
MILIOI

Udal Finantzazio Foru Fondoak likidazio negatiboa izan zuen 2012an, eta Debagoieneko Udalek 1,9 milioi itzuli behar izan zizkioten Foru Ogasunari.

25
TONA TAPOI

Eskoriatzako Aratz Aldai mutikoari laguntzeko 25 tona tapoi jaso ziren. Horren truke jasotako diruarekin etxeko komuna egokitzeko asmoa zuen familiak.

OÑATI
HIRUGARREN MUNDURAKO BIZIKLETAK KONPONTZEN
Oñabike proiektuaren bidez, Oñatiko Larraña-Zuazola institutuko ikasleek bizikleta zaharrak batu zituzten azaroaren 10ean. Denera, 13 jaso zituzten lehenengo deialdian. Horiek konpondu eta Hirugarren Mundura bidaliko dituzte.

**BERGARA****Olaso dorrea, Euskal Herriko jakintsuen topagune ▲**

Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, egoitza berria inauratu zuen azaroaren 13an, Bergarako Olaso dorrean. Eraikina Sorrerakunderena da, eta, Jakiunderekin lotutako akordioari esker, instalazioak partekatzen dituzte; horretarako, 500.000 euroko konponketa lanak egin dira, Kutzak ordainduta. Irudian, Sorrerakundeko, Jakiundeko eta Kutzako ordezkariak, akordioa sinatu zuten egunean.

**BERGARA****'Erlauntzaren sekretua' ipuin musikatua aurkeztu zuten ►**

Bergarako Zabalotegi aretoan *Erlauntzaren sekretua* izeneko ipuin musikatua estreinatu zuen Bergarako Musika Eskolak joan den azaroaren 10ean. Hain justu, 4 eta 9 urteko 44 abeslari igo ziren agertokira, Josemari Iturraldek idatzitako istorioan oinarrituta, David Azurtza konposatzaileak musikatutako ipuina abestera. Emaldi bi eskaini zituzten Musika Eskolako umetxoek.

**BERGARA****Atez atekoaren informazio bulegoa ireki zuten ►▼**

Azaroaren 26an atez ateko zabor bilketa sistemaren gaineko informazio bulegoa zabaldu zuten, lehenengoz, Bergarako Oxirondo azokan; eta azaroaren 23an, jai giroan aurkeztu zuten bulegoa, *Hondakinekin selektiboak gara* lelopean. Askotariko ekintzak antolatu zituzten egun hartarako; besteak beste, material berrera-bilgarriak erabiliz Gabonetako apaingarriak egin zituzten eta Mikel Laskurainek esketxa eskaini zuen (irudian).




Saunier Duval
GUIPUZCOA
Sematec
LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Tel.: 943 76 06 61

www.semateguip.com
bergara@semateguip.com

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**ARRASATE**
LAU GAZTE, SEI ORDUAN KOBAZULO BATEN GALDUTA

Arrasateko eta Aramaioko lau gazte San Valerio kobazuloan, Meatzerrekan, galduta ibili ziren sei orduan, abenduaren 7an. Barruan zeudela, irteerak itxita topatu zituzten eta ezin zuten atzera bidea topatu. 21:00etan topatu zituzten ertzainek.

ARRASATE
GIPUZKOA, EUSKADIKO TXAPELKETAKO IZARRA

Iturripen jokatu zen Euskadiko gazte mailako saskibalo txapelketa. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako taldeek jokatu zuten, beraz, eta Gipuzkoako gizonezko eta emakumezko taldeek irabazi zuten. Mikel Atxa arrasatearra Gipuzkoako jokalaria zen.

DEBAGOIENA
500 UME FUTBOLARI, KIROLA EUSKARAZ EGITASMOAN

Kirola Euskaraz egitasmoa beste etapa baten sartu zen, eta bailarako lau futbol eskoletako neska-mutikoekin eta haien gurasoekin lan egiteko asmoa azaldu zuen, kirolean ere euskara gero eta gehiago eta hobeto erabiltzeko helburuarekin.

**ARRASATE**
LORENTXO ALTUBE
ARTISAUA

30 urtean euskal musika tresnak egitearren, omenaldia egin zioten Udalak, Santamas Komisiñuak eta familiak Lorentxo Altuberi, abenduaren 15ean.

**OÑATI**
MAIDER ARREGI
BERTSOZALEA

Maider Arregi irabazi zuen VI. Oñatiko Bertso Txapelketa. Isidro San Miguelek ipini zion txapela. Jende asko joan zen gaztelekura finala ikustera.

DONOSTIA**Debagoieneko eragile asko kale-agerraldian ►**

Hilaren 2an, *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean kale-agerraldi jendetsua egin zuten hainbat euskaltzalek Donostian. Tartean zeuden debagoiendar asko; euskaltzalek aldetik, Jasone Mendiabala (Topagunea), Oskar Elizburu (AEK), Iban Arantxabal (Goiena) eta beste asko, argazkiak erakusten duen moduan. Debagoiendar askok, bestalde, herrian bertan ospatu zuten Euskararen Eguna, hainbat ekitaldi izan ziren eta bailaran.

**BERGARA****Atez atekoaren gaineko bilkura jendetsua ►**

Ia hiru ordu eta erdi iraun zuen atez atekoaren gaineko osoko bilkura bereziak. Aretoa gutxitan ikusi da hain beteta. Udal Gobernuak kideen eta EAJko zinegotzien arteko eztabaidak luze jo zuen. Udal gobernuaren esanetan, atez atekoa bideragarria dela "argi" zegoen; EAJren hitzetan, "inposizioa" zen; Bergara Zero Zaborrek "alarma soziala piztu" izana egotzi zion EAJri; eta Bergara Garbiak "herriarren nahia aintzat ez hartzea" leporatu zion Udalarari.

**ARRASATE****Malen Ruiz de Azuak, Espainiako marka ondu ▲**

Gipuzkoako Federazioak emandako atleta onenaren sariak hegoak eman zizkion Malen Ruiz de Azua atleta arrasatearrari. Izan ere, saria egubakoitzean, abenduaren 14an eman zioten, eta hurrengo egunean, gazte mailan lehiatzeko zuen azkenaurrerko aukeran -datorren urtean junior mailara pasako da- Ruiz de Azuak Espainiako errekorra ezarri zuen Anoetan: pista estalian 3,86 metroko saltoa. Argazkian, Jonathan Perezekin.

Gabonetan ere...



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

2012-2013 IKASTURTEA

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 83
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net
Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

**UDAL EUSKALTEGIAK****Urtarrilean, berriro ere matrikula zabalik**

Antzuolako Udalak jai zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizue herritar guztioi!



Antzuolako udala
www.antzuola.com



BERGARA SAN MARTIN AGIRRE ESKOLARI, KALITATE ZIURTAGIRIA

Kalitatea Hezkuntzan delako ziurtagiria jaso zuen abendu hasieran San Martin ikastetxeak. Eskola kudeatzen eta antolatzen egin duen lana aitortu nahi izan dio horrela Eusko Jauriaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

ARRASATE AKORDEOI TXAPELKETA POLONIAR BATEK IRABAZI ZUEN

Maciej Frackiewicz poloniarrek jantzi zuen nazioarteko Arrasate Hiria akordeoi lehiaketako txapela, abenduaren 9an. Oso borrokatua izan zen lehia. Gipuzkoako txapelketan ere "sekulako maila" egon zela nabarmendu zuen Hauspoz-ek.

200

MILIOI EURO

2013-2016 Plan Estrategikoa onartu zuten Fagor Etxetresnek abendu erdialdean. Helburuen artean, salmentetan 200 milioi gehiago irabaztea zegoen.

ARAMAIO

Urkullu lehendakariagaia batzokira etorri zen ▲

Kultura etxea lepo bete zen Aramaio batzokiaren 100 urteen gainean Josemari Velez de Mendizabalek idatzi duen liburua aurkezteko ekitaldian, hilaren 1ean. Gonbidatu izarra Iñigo Urkullu izan zen (orduan oraindik ez zuten lehendakari inbestitu). "Letra larriz idatziko den politika egiteko garaia" dela aldarrikatu zuen, eta liburua EAJren espiritua sinbolizatzen duela ere esan zuen.

OÑATI

Toberaren gaineko ezohiko osoko bilkura ►

Debagoieneko Toberaren gaineko ezohiko udalbatzan, ezohiko zinegotziek eta alkateak aho batez onartu zuten abokatua, Oñati defendatuko duena, Egoitz Pika-tegi izatea. Oñatiri akusazio larriak egin dizkiote Debagoie-neko beste herriek –besteak beste, bere isolamendua "interesatua" dela–, eta gaur, abenduak 28, izango da epaiketa Zubikoa kiroldegian, 19:30ean. Horretara joa-teko dei egin zuten ere ezohiko zinegotziek.



ARETXABAETA

25 urteak ospatu zituen Murruxiko elkarteak ▲

Murruxiko mendi elkarteak 25 urte bete zituen abenduaren 22an. Hori ospatzeko, ekintza bereziak egin zituzten abenduko aste buka-ra guztietan. Ospakizun nabarmenenen artean, abenduaren 15ean mendi irteera egin zuten eta, gero, afaria; 60 lagun batu ziren mahaiairen bueltan. Horrez gain, Murruxikoren historia iru-ditan laburtzen duen DVDA ere egin zuen elkarteak. Abenduan, bazkideei banatu zien; laster sal-gai ipiniko du elkarteak.



OÑATI

Eskola publikoak, batera Urgain Eskola izenaz ▲

Oñatiko lau ikastetxe publikoek –Txiki-txoko Haurreskolak, Erre-kaalde Herri Eskolak, Zuazola-Larraña Institutuak eta Helduen Heziketak– Urgain Eskola izena hartuko dute aurrerantzean bate-ra egiten dituzten gauzetarako, eskola bakoitzak bere izaerari eutsita. Hala jakinarazi zuten abenduaren 18an. Helburua da Oñatiko Euskal Eskola Publiko baten iru-dia eman eta izaera bakarra izatea, auzo lana bultzatuz eta elkarlanean jarduteko bideak jorratuz.



OÑATI PLAZAOLA PRESOA HILETA ELIZKIZUNERA EKARRI ZUTEN

Alberto Plazaola Aitto preso, 1990ean atxilotua, herrira ekarri zuten, amaren hileta elizkizunera joan zedin. Herritar ugari batu ziren, pankartekin; tartean zeuden Mikel Biain alkatea, Josu Lizarralde alkateordea eta Larraitx Ugarte diputatua.

BERGARA ETA OÑATI "ATEZ ATEKOA, APIRILERAKO", DIO MANKOMUNITATEAK

Mankomunitateak asmo honen berri eman zuen abendu hasieran: 2013ko apirilerako, atez atekoa martxan izatea Oñatin eta Bergaran. Hori jakinarazi zuten Inazio Azkarragaurizar, Mikel Biain, Jesus Elortza eta Eugenio Otsoa alkateek.

OÑATI LARRAÑAN EZ JOKATZEA ERABAKI ZUTEN BETERANOEK

Larrañako zelaian ez jokatzea erabaki zuten Beteranoak HFT txapelketako taldeek. Euren esanetan, kirolgune horrek ez zuen hamaikako futboleant jokatzeko aukerarik ematen, bakarrik bederatzikoan, eta orain arte moduan jarraitu gura zuten.

BERGARA

Atez atekoaren kontra, zabor-poltsa balkoian ▼◀

Bergarako Bilduko gobernuaren jarrera "inposatzailea" zela salatu zuen Bergara Garbia plataformak. Herritarren nahia aintzat ez hartzea leporatu zion, eta atez atekoaren aurka protesta egiteko, balkoian paperez betetako zabor-poltsak ipintzeko dei egin zuen; hainbat herritarrek bat egin zuten horrekin. Udai gobernuak, bestalde, urtarrian parte-hartze prozesua hasiko zuela jakinarazi zuen. %70 birziklatzea ahalbidetzen duen proposamena aztertzeke.



ARAMAIO

'Lurgorri' gudaria gogoan, erail zutela 75 urte zirela ▲

Abenduaren 16an bete ziren 75 urte frankistek Jose Mari Azkarra-ga *Lurgorri* gudari jeltzale aramaioarra hil zutela, eta senideek omenaldia egin zioten. "Omenaldi honekin, Lurgorri bakarrik ez, Aramaion eta inguru honetan gorpuztu zen mugimenduan ibili ziren gazteak eta ez hain gazteak omendu gura izan ditugu. Beraiek defendatu zuten gure herria", esan zuten senideek.

Bergarar guztioi

Zorionak

eta urte berri on!

- ✱ Kayak
- ✱ Azpeitxi
- ✱ Etxagi
- ✱ Zunbeltz
- ✱ Irish Pub Galways
- ✱ Bule
- ✱ Euxebio II
- ✱ Toki Ona Bodegoia
- ✱ Usoa
- ✱ Infernukua
- ✱ Ariznoa
- ✱ Kai
- ✱ Iraho

Erronketan aurrera egiten laguntzeko gaude.

Euskara planen bidez hizkuntzak eraginkortasunez kudeatzen dituen talde profesionala gara.

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

SOKOA AZKARATE 'SOKO' | REALEKO ATEZAINA

"Ikusi ditut jokalaririk futbola uzten, lana edo ikasketak direla-eta"

Realeko nesken atezain titularra arrasatearra da; 33 urte ditu eta luzaroan jarraitu nahi du futbolean, gustura dihardu-eta; industria injinerua ere bada eta horretan lan egiten du Elorriori, lanbidea futbolarekin uztartuz. Urteko protagonistetako bat da

ENENKO AZKARATE | ARRASATE

Sokoa Azkarate *Soko* (Arrasate, 1979) Realeko atezain titularra da. Adinez, taldeko jokalaria beteranoena da, gainera. 2008an heldu zen Zubietara, Mondragoeko taldetik. 17 urterekin hasi zen Arrasateko taldean futboleant. Aurretik, saskibaloian aritu zen. Futboletik aparte, Elorriori egiten du lan, aplikazioen injinerutza lanetan; izan ere, Goi mailako industria injinerua baita ikasketez.

Realeko nesken futbol taldeko beteranoena zara. Ardura berezia?

Adinez, nagusiena naiz, eta Realean bost urte daroatzat, baina badira hemen urte gehiago daroatzatenak. Lau kapitainetako bat naiz. Realak 2004an sortu zuen nesken futbol taldea eta ni neu, 2008an heldu nintzen hona.

Taldeko erreferente nagusia zara? Erreferente bat banaiz, baina ez inportanteena. Atezaina naiz, zaharrena ere bai, eta urte gehien daroatzatenen artean nago, horre-

gatik naiz kapitainetako bat, eta, taldekideek, bereziki gazteenek, aintzat hartzen naute. Baina taldean oso tratatu onak daukagu denon artean, adinari begiratu barik. **Saskibaloian hasi zinen Mondragoan...** Bai, lagunak saskibaloian jokatzeo eman genuen izena eta hala ibili ginen taldea desagertu zenera arte. Ondoren, kirolean jarraitu nahi eta futboleant jokatzeo aukera zegoenez, ba, hantxe hasi nintzen 17 urterekin.

Eta atezain hasi ere. Zergatik?

Kirol zalea eta kirolaria izan naiz beti, baina ez dut izan kirolarekiko dohain berezirik eta, beste-tik, txikitari asma neukanez, eta beste inork gutxi nahi izaten duenez atezain jartzea, bada, neu jarri nintzen ate azpian. Orain oso gustura nago.

Zela gogoratzen duzu Realera joateteo deia?

Ustekabe handia izan zen. 29 urte egiteko, Arrasateko Erregional mailako taldean..., ez nuen inondik inora espero Realerako deirik. **Mondran, besteak beste, Rebea Ubera gaur egun batzarkide eta legebiltzarkidea denarekin aritu zinen. Zeu Realean eta hura politikan...**

Maila nazionalen genbiltzanean batera aritu ginen, ni hasi berri-tan. Noizean behin egiten dugu topo eta gogoratzen ditugu elkarrekin emandako urteak. Oroitzapen onak ditugu. Grazia egiten du ikusteak zela aldatu diren gauzak.

Realarekin Lezaman egin zenuen debuta Athletic-en aurka...

Bai, hala da. Nire taldekide atezain titularrari txartel gorria atera zioten eta hurrengo partidua niri egokitu zitzaidan jokatzea. Hunkigarria izan zen, ze debutekoa izateaz gain, derbia ere bazen. Eta herrikide eta lagun asko joan zen partidua ikusi eta animuak ematera, pankartekin-eta. Gainera, bina berdindu genuen kategoriari oilarren kontra eta etxetik

kanpo. Oso gogoan dut, bestalde, debuteko eguna, esanguratsua: 2010-10-10.

13 zenbakia daroatzazu bizkarrean. Atezainak superstiziosoak edo maniatikoak ei zarete, baina...

Egia esan, neurri kontua izan zen, hasieran. 13 zenbakikoa tal-la handiagokoa zen 1 zenbakikoa baino eta hala hartu nuen hura. Gerora, gustura sentitu naiz eta, orain, beti aukeratzen dut zenbaki hori. Nire parte da. Ez naiz superstiziosoa. Niri ez dit zorte txarrik eman.

Euskal Selekzioarekin edo Espainiarekin jokatzeo itxaropenik bai?

Adin honetan, zail ikusten dut. Athletic-eko eta Lagunak-eko atezainak dira Euskal Selekzioako hautatuak. Eta oso atezain onak dira. Athletic-ekoa, esaterako, Espainiakoa ere bada.

Realean luzaroan jarraitzeo asmoa duzu?

Ez dut horretan pentsatu. Gustura nago eta ilusioarekin jarraitzen dut eta urtero-urtero berri-tzen dut kontratua. Ekainean erabakiko dut aurren ere.

Emakume izateak baldintzatzen du erretroraren ordua?

Nire kasuan, ez. Lanak bai, akaso. Ezin dezakegu bizi futboletik, eta beharrezkoa zait, beste hainbati bezala, lan egitea. Ikusi dut hainbat jokalaria futbola uzten, lanagatik edo ikasketengatik.

Arkonada izan da zure erreferen-tzietako bat.

Guretako erreferentzia garbia, apur bat urruneokoa izan arren.



Sokoa Azkaratek (33 urte) bost urte egingo ditu Realean. | ARGAKZI PRESS

Bravo eta Zubikarai?

Biak dira oso onak. Bravok, akaso, segurtasun handiagoo ematen die taldekideei, baina Zubikarai ikusi dut sekulako geldiketarik egiten.

Atezain bezala, zertan nabarmen-tzen zara?

Ate azpian. Eta esperientzia ere gradu bat da.

Goizeko 7etan irteten zara etxetik zara Elorriori lanera joateko. Eta, arratsaldean, lanetik ateratzean, entrenatzera joaten zara Donos-

tiara... 22:00etan itzultzeo etxe-ra, Mondragoera. Gogorra?

Bai. Asteant barrera egunero dut entrenamendua, eguenetan izan ezik, eta asteburuan partidua. **Lankideak Real zale egin dituzu?**

"Realean fitxa dugu baina ez du bizitzeko ematen"

Gehienak Athletic zaleak dira, baina baita Sokoa zaleak ere. Nesketan, Realekoak direla diote.

Realeko gizonezko talde nagusi-koekin harremanik baduzue?

Gutxi, ze haiek goizez entrenatzen dute eta geuk arratsalde-iluntzean. Ekitaldietan, lagunartekoan inau-gurazioetan eta halakoetan elkar-tzen gara.

Eta Mikel Gonzalez herrikidea-rekin?

Gehiago. Oso jatorra da eta lehen aldiz Realeko talde guztiak aur-



Mikel Gonzalez eta Sokoa Azkarate, Musti taldearen jaiant. | SOKOA AZKARATE

keztu zituztenean han hasi zitzai-dan, "Animo, Soko!" Bestalde, esaterako, Musti lagunartekoek urtero saria banatzen die Realeko jokalaria onenei eta iazko saria Gontxa-ri eta niri eman ziguten.

Realeko jokalaririk fitxa profesio-nalak eta soldata dituzue, baina hori ez da ohikoa emakumezkoen futboleant, ezta?

Reala eta Barca gara apurren-takoak eta oso ondo dago. Realak beste urrats bat eman du eta oso garrantzitsua da. Jakina, honek ez du bizitzeko ematen. Ligan gutxi batzuk dira, nabarmentzen direnak edo Amerikako Estatu

Batuetara jauzi egiten dutenak, hemendik bizi daitezkeen jokalariak.

Ze moduz doa aurtengo denbo-raldia?

Ez gaude espero genuen tokian, sailkapenean. Baina aterako gara. Sentsazio onak ditugu.

Eta gizonezkoak zela ikusten di-tuzu?

Oso ondo, indartsu, sasoi eta bolada onean. Ea horri eusten dioten. Duela ez horrenbeste, Mikel Gonzalezekin topo egin nuen Urretxun, hango lagunartekoekin eta ez zbiltzan sasoi onean. Gero, irabazten hasi ziren eta begira orain.

Zela joan zaizu amnaitzeo doan 2012 urte hau?

Niri, ondo doakizkit gauzak, nahiz eta egoera oso txarra izan, krisiagatik-eta. Horrek guztioi eragiten digu, baina ezin kexatu, ze lanean dihardut eta futboleant ere oso gustura.



Jean Louis David
Ile Apain

Zorionak eta Urte berri on!

Urtarrilaren 7tik otsailaren 28ra
Astelehen, astearte eta asteazkenetan

%20ko
deskontua ile-apaindegian*



Ibargarai 43 · 20570 Bergara · 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com
Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30
Ostirala: 09:30 > 18:30
Larunbata: 08:30 > 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.

Goizperrek
gabon jai zoriontsuak
opa dizkizue guztioi.
Urte berri on!

Elkarlanean garatzen

Ihinzadura • Industria • Bioteknologia

Antigua 4, 20577 Antzuola / 943 78 60 00 / www.goizper.com

Krisia eta ondorioak, nagusi

Krisia, murrizketak, ustelkeria, langabezia... urteko gertaerarik negatiboenak dira. Egoera ezkor horri aurre egiteko jarrera, balio aldaketa... dira, berriz, herritarrek positiboen baloratzen dutena.



IÑAKI ZABALA
Erretiratuen presidentea
Bergara

↑ **PARTE-HARTZEA**
"Aurtengo Hamabostaldi Kulturean herritarrek izan duten parte-hartze handia eta hizlarien arrakasta azpimarratuko genuke".

↓ **DIRUAREN MURRIZKETA**
"Tamalez, diru murrizketak nabarmenak izan dira aurtun, eta guk ere ezin izan ditugu gauza gehiago antolatu diru faltagatik".



AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN
Dietista
Oñati

↑ **GERTUKOEKIN HARREMANAK**
"Etxekoekin egoteko apustua egin dut aurtun; ez da samurra izan, baina egon beharreko tokian egon naizen sentazio ona dut".

↓ **SARTU ZAIGUN BELDURRA**
"Jendea txikituta moduan ikusten dut, psikologikoki beldurtuta, etorriko denaren zain. Geldi gaudela, jaiki egin behar dugu!".



MARIASUN PAGOAGA
Aktorea
Arrasate

↑ **BIZIMODUA AUERRERA DOA**
"Aurtun ere Santamasak ospatu ditugu; hau da, gorabeherekin bada ere, bizimoduak aurrera segitzen duela goraipatuko nuke".

↓ **MAIEN IRAGARPENA**
"Krisiaz eta bizi dugun egoeraz gainera, pertsonalki, maiak egin dako mundu amaieraren iragarpenak ere arduratu egin nau aurtun".



AITOR PEROSTERENA
Zinema zuzendaria
Oñati

↑ **HERRITARREN ERANTZUNA**
"Bizi dugun egoeraren aurrean herritarrek izan duten erantzuna. Herritarrek mugitu egin dira, batera, eta hori ona izan da".

↓ **POLITIKARIEN LANA**
"Eguno egoera ekonomikoaren aurrean politikariek hartu duten jarrera. Herriari lagundu ordez, euren alde egin dute lan".



PELLO ZABALA
Abadea
Oñati

↑ **INDEPENDENTZIA HAIZEAK**
"Zailtasunen aurrean herri honek duen indarra eta kemena. Eta Katalunian eta Euskal Herrian dabilen independentzia haizea".

↓ **EZIN GAUZAK BERRITU**
"Gizarteak pentsaera zaharren pisu handiegia du. Politikan, erlijioan... Gauzak berritzeko dugun zailtasuna handiegia da".



IÑIGO ARREGI
Eskultorea
Arrasate

↑ **JENDEAREN ERANTZUNA**
"Orokorrean egoera txarra den arren, ikaragarria da jendeak aurrera egiteko duen indarra. Normaltasun fiktizio baten gaudela uste dut".

↓ **TRISTURA KALEAN**
"Krisiaren eraginez gizartearen sortu den testuinguru negatiboa; tristura gailendu da gizartearen. Kolapsatuta moduan gaudela".



NAGORE SANZ
Musika irakaslea
Bergara

↑ **BALIO ALDAKETA**
"Gaur egungo krisia gizartearen eragiten ari den balio aldaketa positiboa aipatuko nuke gauza on moduan".

↓ **MURRIZKETAK KULTURAN**
"Murrizketak direla-eta, musika, hezkuntza sistemak eta kulturak orokorrean jasaten ari diren atzerapauso izugarria".



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREIZABAR
Irakaslea
Bergara

↑ **LANTALDEAN ARITZEA**
"Belaunaldi, lanbide eta ideologia desberdinetako bergararrek lantaldean aritzeko aukera aberasgarria izan dut aurtun".

↓ **KRISIAREN ERAGINA**
"Gertuko lagunak langabezia eta enpresak krisiak jota ikustea eta laguntzeko modurik ez izatea benetan mingarria da".



JON MOLINA
Parrokoa
Bergara

↑ **BALIOAK BERRESKURATZEA**
"Bizi dugun krisiak izan du alde positiborik. Galtzearen zeuden balio asko erreperatzen ari gara: solidaritatea, sakrifizioa...".

↓ **KRISIAREN AURPEGIAK**
"Krisiari aurpegiak ipini dizkiogu, esaterako, etxe kaleratzeekin. Gainera, ikusi dugu krisia gutxi batzuen diru goseak sortu duela".



UNAI AZKARATE
Musikaria
Bergara

↑ **TONKY DE LA PEÑAREKIN**
"BB King, Jerry Lee Lewis eta Rolling Stones taldeko Mick Taylorrekin aritutako Tonky de la Peñarekin agertokia konpartitzeko aukera".

↓ **MURRIZKETAK**
"Herritar askoren erantzuna, izango dela suposatzen dut, baina urteko txarrena, zalantza barik, bizi izaten ari garen murrizketak dira".



ANABEL DOMINGUEZ
Kazetaria
Arrasate

↑ **EGOERA EKONOMIKOA**
"Gaur egungo egoera ekonomikoa: langabezia, murrizketak, BEZaren igotzea... Familia asko krisia gogor pairatzen ari dira".

↓ **EGOERA POLITIKO BERRIA**
"Euskal Herrian zabaldu den eszenatoki politikoa berria, eta bailara mailan, elkarte eta taldeak ilusioz aurrera eramaten ari diren proiektuak".



JAVIER MARCOS
Kazetaria
Aretxabaleta

↑ **KOOPERATIBEN URTEA**
"Kooperatiben Nazioarteko Urtea izatea 2012a; kooperatiben irudia munduan barrena hedatzeko balio izan du".

↓ **ENPLEGU GALERA**
"Erreformak, murrizketak, doikuntzak, estutasunak... eta enpleguak galdu izana; dagoeneko 171.000 langabe Erkidegoan".



KEPA ERRASTI
Aktorea
Aretxabaleta

↑ **ANTZERKI EGITARAUA**
"Urriko antzerki programazioa Arkupeko Zaria aretoan. Ea gehiagotan egin eta zaletasuna sortzen den gurean".

↓ **EUSKARAREN ERABILERA**
"Aretxabaletako euskararen erabileraren kale neurtetaren emaitza kezkarria: hamar gaztetatik hiruk bakarrik egiten dute euskaraz!".



AITZIBER GOROSABEL
Turismo Bulegoko arduraduna
Leintz Gatzaga

↑ **JENDE ATSEGINA**
"Bizi dugun une zailotan jende atseginarekin eta jarrera positiboa duenarekin topo egitea; gatz museo-ko bisitetan, esaterako".

↓ **ERABAKI EKONOMIKOAK**
"Erabaki ekonomikoek eragin handia dute beste erabaki askotan; horiek okerrera eragin ohi dira, eta, gainera, luzerako".



IÑAKI KORTAZAR
Aitzorrotz kultura elkartearen
Eskoriatza

↑ **ALDERDI POLITIKO GUZTIAK**
"Gatazkaren konponbiderako, instituzioetan sententziaz politiko guztien presentzia dagoela nabarmenduko nuke".

↓ **KRISIA**
"Kapitalismoaren erorketak ekarri dituen ondorio latzak ahulena ordaindu behar izatea da, nire ustez, gauzarik txarrena".

ALDEDI

Urte berri on!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxes: 943 79 13 84

Japoniako teknologia aurreratua

Pizte erraza gama osoan

heskai-moztekoa

hasiera botatzeko makina

sasi-garbitzeko makina

motozerra

ZORIONAK eta Urte berri on!

comercial BRUNET

www.comercialbrunet.com

Telleria, 2 • Labegaraleta
Tel.: 943 76 31 52 • Fax: 943 76 70 12
brunett@telefonica.net
BERGARA - GIPUZKOA

Jarrai gaitazu:



SOKOA AZKARATE
Realeko jokalaria
Arrasate

↑ **EMAKUMEZKOEN FUTBOLA**
"Neurera ekarriko dut gaia, esateko emakumezkoen futbola badabilela aurrerapausoak ematen profesionalismora gerturatzeko".

↓ **KIROLAK LAGUNTZA GUTXIAGO**
"Krisialdia dela-eta enpresa asko txarto pasatzen ari dira, eta horrek eragina du kirolean, babesle-tza asko galtzen ari dira-eta".



GOIO ARANA
MUko irakaslea
Arrasate

↑ **USTELKERIA AZALERAZTEA**
"Ekonomian, politikan eta boterean oro har zegoen eta denok genekien ustelkeria bere gordintasunean azaleratu dela".

↓ **ERANTZUN ESKASA**
"Ustelkeria horren aurrean dagoen erantzun eskasa. Herritarrok erraz onartzen dugula horrelakoak pasatzea".



INAZIO ARREGI
Tokikom-eko zuzendaria
Oñati

↑ **AUKERA POLITIKO GUZTIAK**
"Onena, Legebiltzarrean aukera politiko guztiak ordezkatuta egotea, herritarrek emandako konfiantzaren arabera".

↓ **LANGABEZIA GORA**
"Eustat-en arabera, %11,8ko langabezia-maila dugu EAEn; pres-takuntza ona duten gazte gehienak lana ezin aurkitu daude".



PATXI KORTABARRIA
AKE-ko batzordekidea
Antzuola

↑ **NORMALIZAZIO POLITIKOA**
"Aurten, ematen duenez, normalizazio politikora iristen ari gara. Horrek poztu egin nau aurten, eta, nire ustez, hori da onena".

↓ **KRISIA**
"Zalantza barik, krisia da urteko txarrena. Krisiaren eraginez, ikus-ten ari garen kasu larriak dira urteko egoera gogor eta okerrean".



MARIA AGIRRE
Kazetaria
Aretxabaleta

↑ **KIROLDEGI BERRIA HERRIAN**
"Aspaldiko proiektua gauzatu da, nahiz eta buruhausteak eta ezta-baida ekarri duen. Ondo inbertituta-ko dirua izango dela uste dut".

↓ **GAZTEEN LANGABEZIA**
"Gazteen langabezia hazi eta hazi doala ikustea. Ikasketak buka-tu eta ondo prestatuta egon arren, ezin lanposturik aurkitu".



MARIA CRUICKSHANK
Aktorea
Oñati

↑ **GIZAKIA ESNATZEA**
"Pixkanaka-pixkanaka gizakia bere inkontzientzia horretatik irat-zartzen ari dela konturatzea da, nire ustez, onena".

↓ **INKONTZIENTZIA**
"Gizakia inkontzientea dela. Ezjakintasunez beteriko amets batean lo dagoela ikustea da, nire ustez, okerrean".



2012 ONENA

& TXARRENA



GOIENA.NET

Goiena.net-eko erabiltzaileek ere aukeratu dute urteko onena eta txarrena. Guretik hasita, baita Euskal Herrikoa eta mundu mailakoa ere. Hemen emaitza.

DEBAGOIENEN ONENA

%14,81 Paisaia.

%11,11 Tobera.

%7,40 Mondrak mailari eustea.

DEBAGOIENEN TXARRENA

%14,81 Langabezia.

%11,11 Zabor bilketaren erabilpena.

%7,40 Oñatiko kuartela.

EUSKAL HERRIKO ONENA

%14,81 Euskara.

%11,11 Normalizazio politikoa.

%7,40 Euskal kirolariak.

EUSKAL HERRIKO TXARRENA

%33,33 Krisia.

%11,11 Politika.

%7,40 Abiadura Handiko Trena.

MUNDUKO ONENA

%14,81 Ikerketa/sendagai berriak.

%11,11 Elkartasuna.

%7,40 Lan bat izatea.

MUNDUKO TXARRENA

%25,92 Munduko pobrezia.

%14,81 Krisia.

%11,11 Gerrak.

DEBAGOIENEN PERTSONAIA

%33,33 Maider Unda.

%11,11 Alberto Iñurrategi.

%7,40 Mikel Gonzalez.

MUNDUKO PERTSONAIA

%18,51 Barack Obama.

%11,11 Angela Merkel.

%7,40 Lance Armstrong.

EUSKAL HERRIKO PERTSONAIA

%14,81 Laura Mintegi.


%11,11 Mikel Laboa

%7,40 Oihana Kortazar.

Kanpoko multimedia disko gogorra irabazi du Imanol Arantzabalek. Zorionak!



Ezkeretik eskuinera:
Mikel Lizarralde
Oihana Vega
Fermin Etxegoien
Arkaitz Villar
Iker Barandiaran



Ale ederrean uzta eta sorkuntza

- Baionako Willis Drummond taldea euskal rockaren 'tronura' igo da, eta oraindik gorantz doa
- Bergarako Belceblues, erreferente: Euskal Herriko Lehen Saria eta AEBetarako txartela
- Nazioarteko albistea izan da beste ahots handi bat betiko itzali dela: Whitney Houston

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urte bateko musika uzta osoa-
ren ale ederrenak aukeratzea
lan zaila da benetan. Euskal
Herrian **Willis Drummond** taldea-
ren *A ala B* (Bidehuts) nabar-
mendu beharra dago. Arkaitz
Villarrek disko horren "sendota-
suna" goraiatu du: "Taldearen
ibilbidean beste urrats bat da
diskoa. *Menperatzen dut* bezala-
ko abestiek argi uzten dute hori".
Baionako taldea duela zenbait
urte igo zen euskal rockaren *tro-
nura* eta ez du jaisteko asmorik,
ezta gutxiago ere: "AC/DCren eta
Fugaziren arteko ezinezko batu-
keta moduan hasi zen taldeak ez
du mugarik, etengabe hazten doa.
Gaur egun Euskal Herrian ikus
daitekeen talde indartsuena da",
uste du Iker Barandiaranek.

Rockaz haratago, bestalde,
Tolosa epizentro duen **Glaukoma**
taldearen *Vol.1* (Bonberenea Ekin-
tzak) nabarmendu beharra dago:
"Zerbait du talde honek oso ona
dena: taldekideak gazteak dira,
baina oso kantu sinesgarriak
egin dituzte hitzei eta musikari
begira, eta instrumentazio alde-



Willis Drummond, zuzenean, Gasteszenan. Euskal rockaren *tronuan* daude egun, etengabe hazten. | JON IRAUNDI

tik ere oso finak dira", uste du
Barandiaranek. Villarren arabe-
ra, "beroa eta haize freskoa" eka-
rri diote euskal eszenari.

Era berean, **Meido** taldearen
Double Dragon (autoekoiztua)
diskoak berretsi du bilbotarrek
rock trinkoa, gordina eta zuzena
egiteko orduan adituak direla.
Joseba Irazokiren Oso banda
(Bidehuts) ere, azpimarratzekoa;
Berakoa arduratu da musika
guztiaz. Mikel Lizarralderen ara-
bera, lau kantu besterik ez duen
arren, "Joseba gure artean dagoen
gitarra jole eta kantu egile one-
netakoa da". Azkenik, **Ze Esate!**
eta **Hesian** taldeek "jauzi kuali-
tatibo eta kuantitatiboa" eman
dute azken diskoekin, Oihan
Vegaren arabera.

Nazioartean, denetarikoa aleak
Euskal Herriko ale ederrenak
aukeratzea zaila bada, zer esanik
ez mundu osoko disko esangura-
tsuenak zehaztea. **Adele**-ren *21*
izan da, ezbairik gabe, aipaga-
rrienetako bat: "Bere ahots sen-
doak mundu osoa txunditu du.
Soula gustuko duenak pasatzen >



Urte Berri On!

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A.
Gipuzkoa Etorbidea 32
943 79 16 55
20500 ARRASATE



ARAMAIOKO UDALA
ARABA

"Aramaio Udalbatzak
Gabon zoriontsuak
opa dizkizue
aramaioar guztioi,
eta bereziki etxetik
kanpo zaudetenoi!"



Bulego ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00
Asteazkenetan: 16:30 - 18:30

Bixente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 943 44 50 16
www.aramaio.org • udala@aramaio.org



Egilea: Iratxo Lopez de Bergara



IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ALTZARIAK

zorionak eta
urte berri on!

ibargarai 4. 2050 bergara - Tel./Faxe: 943 763737 - imb_estudioa@hotmail.com